

**EUSKARAREN  
IRAKASKUNTZAREN  
BALIABIDEAK:  
AHOZ GORA IRAKURKETA  
LANTZEKO SEKUENTZIA  
DIDAKTIKOA.**

**IKASLEA: Del Campo Etxeberria, Maddi**

**TUTOREA: Leire Diaz de Gereñu**

**Euskal Ikasketak 2015-2016**

**Graduko Jakintza arloa: Euskararen Didaktika**



## AURKIBIDEA

LABURPENA.....	4
1. SARRERA .....	5
<b>2. ATAL TEORIKOA.....</b>	<b>6</b>
2.1. AHOZKO ETA IDATZIZKO MODALITATEEZ GOGOETA .....	6
2.2. AHOZKOA IRAKASKUNTZAN.....	9
2.3. AHOZKOA OBJEKTU IRAKASGARRI GISA.....	10
2.4. AHOZ GORAKO IRAKURKETA .....	12
2.4.1. Zertarako irakatsi?.....	13
2.4.2. Zer irakatsi?.....	14
2.4.3. Nola irakatsi? .....	14
2.5. SEKUENTZIA DIDAKTIKOAREN METODOLOGIAZ.....	16
<b>3. ATAL PRAKTIKOA .....</b>	<b>19</b>
3.1. TESTUEN ANALISIA .....	19
3.1.1. IKASLEEN PROFILA ETA KONTSIGNA.....	19
3.1.2. CORPUSEKO IKASLEEN GAITASUNAK ETA GABEZIAK .....	21
3.2. SEKUENTZIA DIDAKTIKOA: IPUINEN AHOZ GORA IRAKURKETA .....	25
1. MODULUA: Egoeraz jabetzea.....	27
Lehenengo ariketa .....	27
Bigarren ariketa.....	28
Hirugarren ariketa .....	29
Laugarren ariketa .....	29
KONTROL ZERRENDA .....	30
2. MODULUA: Hasierako eta amaierako formulak.....	30
Lehenengo ariketa .....	30
Bigarren ariketa.....	31
Hirugarren ariketa .....	31
Laugarren ariketa .....	32
KONTROL ZERRENDA .....	32
3. MODULUA: Modalizazioa .....	32
Lehenengo ariketa .....	32
Bigarren ariketa.....	32
Hirugarren ariketa .....	33
Laugarren ariketa .....	34
Bosgarren ariketa .....	34



KONTROL ZERRENDA .....	35
4.MODULUA: Bukaerako ekoizpena.....	35
Lehenengo ariketa .....	35
Bigarren ariketa.....	36
EBALUAZIOA.....	36
<b>5. ONDORIOAK .....</b>	<b>37</b>
<b>6. BIBLIOGRAFIA.....</b>	<b>38</b>
ERANSKINA: TRANSKRIBAKETA IRIZPIDEAK .....	39
ERANSKINA: CORPUSA .....	40



## LABURPENA

Hizkuntzen didaktikaren arloan, 1990. urtetik aurrera, ahozkoa ikerketa eta hausnarketa objektu izan da (Dolz & Scheuwly, 1998). Hala ere, Idiazabalek (2007) dioen bezala, ahozko adierazpidea eskolan irakatsi nahi bada, ezagutu egin behar da, modurik zehatzenean, gainera. Denok izan dezakegu hizkuntzen funtzionamenduari buruzko iritzia, baina, uste dugunetik gauzak gertatzen diren modura alde handia dago.

Egungo eskola curriculumetan ahozkoa landu beharra azaltzen da, baina, praktika errealetan ez da erraz gauzatzen. Arrazoiak asko dira: ahozko adierazpidearen konplexutasuna, irakasteko ikuspuntua, ahozkoa behatzeko eta ebaluatzeko zailtasunak, e.a.

Zailtasun horien erakusgarri dugu ahoz goraren irakaskuntza ere. Eskolan beti landu izan den arren, gutxitan lantzen da testu genero ikuspegitik eta modu sistematikoan (Dolz & Scheuwly, 1998, Diaz de Gereñu, 2002). Irakasleen %70ak dio ahoz gorako irakurketa errekurtsio arrunt moduan erabiltzen duten arren, ez dutela ahozko adierazpenaren ikaskuntza eta garapenerako ekintza baliagarritzat jotzen. Hori dela eta, lan honetan, adierazpide modu honen izaeran eta ahozkoa lantzeko eskaintzen diren hizkuntzen didaktikarako baliabideetan sakonduko da.

Lanaren egiturari dagokionez, elkarloturik dauden bi atal nagusi izango ditu: atal teorikoa eta atal praktikoa:

Lehenengo atalean, ahozko eta idatzizko modalitatea aipatuko ditugu. Halaber, testuez eta testu-generoez ere egingo dugu gogoeta. Izan ere, ahoz gora irakurketa testu mailako lanarekin lotuko baita. Gainera, ahozkoak irakaskuntzan izan duen funtzioa eta bilakaera azalduko ditugu, beraz, objektu irakasgarri bezala lantzeko beharra azpimarratu. Ondoren, ahoz gora irakurketari buruz arituko gara; zehatzago, zergatik irakatsi, zer irakatsi eta nola irakatsi galderak izango ditugu hizpide. Atal teorikoarekin bukatzeko, Genebako ereduaren arabera Sekuentzia Didaktikoaz bi hitz egingo ditugu.

Bigarren atalean, irakurketa ozena lantzeko lau moduluz osatutako Sekuentzia Didaktikoa diseinatuko da, testu-generoak lantzeko metodorik egokiena iruditu zaigulako. Hain zuzen ere, perpaus mailatik gorako lanketa egitea baimentzen baitu. Beraz, metodologia honek, testu-genero bat hautatzea eskatzen duenez, kasu honetan,



ipuinak aukeratu da. Ipuinak bi adierazpideen arteko elkarreragina baimentzen du eta honek duen komunikazio estetikoaren ere azpimarratzekoa da.

Atal praktikoa osatzeko, corpora bildu, transkribatu eta aztertu ondoren, ikasleen gabeziatik abiatuta zehaztu dira moduluak. Corpora lanaren emaitza ere bada eta, hortaz, eranskin gisa jaso da. Aztertutako gabezia horien artean, alderdi hauei eman diegu lehentasuna: komunikazio egoeraz jabetzeari, zehazki ahoz gora zer baliabide mota den eta ahozko eta idatzizko adierazpideak nola uztartu lantzeari; ipuin irakurketarako hasierako eta amaierako formulaz baliatzeari; modalizatzeari eta ondostuen ekoizpena egiteari.

Azkenik, lan guztiari begira, ondorioak ekarriko ditugu. Baita, lana egiterakoan, ahozkoa helburu zehatzekin eta modu sistematikoan irakasteko beharra non azpimarratzen den eta horretarako egon daitezkeen zailtasunak ere.

## 1. SARRERA

Lan honetan, ahoz gorako irakurketaren adierazpidea lantzeko Sekuentzia Didaktiko bat eraiki da. Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako (10-11 urte) ikasleei ipuinak ahoz gora irakurtzen irakasteko baliabideak lantzea izan da. Oinarri teoriko nagusizat, Genebako eskolako metodologia hartu da, berezko ahozkoa lantzeari eskaintzen zaiona (Dolz & Schneuwly, 1998).

Lanaren egiturari dagokionez, bi atal nagusi ditu. Lehenengoa, zehazki, ahozko testu-generoen irakaskuntzari dagokio, zeinak testu-generoa hartzen duen irakaskuntza objektu gisa, baita ahozkoa ere (Dolz & Schneuwly, 1998). Bertan jasotzen dira, alde batetik, ahoz gorako irakurketaren ezaugarriak eta lanketa sistematiko batek ekar ditzakeen onurak. Bestetik, eskoletan ahozkoa objektu irakasgarri bilakatzeak duen garrantzia azpimarratzen da, testu ikuspegitik beti ere. Lanaren bigarren atal nagusia praktikoa da: ikasleen ahoz gora irakurketan aurkitutako gabeziatan oinarritutako ipuinak ahoz gora irakurtzeko Sekuentzia Didaktikoa diseinatu da eta.

Jakina da lan nekeza dela ikasle talde bakoitzaren beharretara egokitutako Sekuentzia Didaktikoa gauzatzea, baina ahozko objektu irakasgarri bihurtzea gaur eguneko irakaskuntzaren erronka saihestezina da. Ahoz gorari dagokionez, adierazpide modu honek idatzizko euskarria eskaintzen digu ahozkoa lantzeko eta, horregatik, bi adierazpideen arteko zubi lanak egiteko lanabes bikaina dugu (Dolz & Schneuwly,



1998). Beti ere, testu ikuspegiaren arabera eta ahozko komunikazioaren baldintzapean lantzen bada.

## 2. ATAL TEORIKOA

Atal honetan ahozko modalitatearen berezko izaera eta ezaugarriak bilduko ditut. Izan ere, azken hamarkadetan lan askok erakutsi dute idatziaren ikuspegiaren arabera epaitu eta arbuiatu izan direla ahozkoaren berezko hainbat ezaugarri. Muturrera joanez, sarritan hizkuntza idatzia ahozkoaren, “hizkuntza naturaltzat jotzen denaren”, ordezeko sistematzat bakarrik hartu izan da (De Pietro eta Dolz, 2007). Gainera, Larringan eta Idiazabalek (2007) dioten bezala, gramatikariak askotan hizkuntza idatzia hartu izan dute eredutzat ahozko hizkuntza eta lengoia deskribatzeko. Hori dela eta, beharrezkoa dirudi ahoz gora lantzeko hartutako ikuspegi teorikoa azaltzea.

### 2.1. AHOZKO ETA IDATZIZKO MODALITATEEZ GOGOETA

Aipatu behar da ahozko eta idatzizko modalitateen artean, antzekotasunak egon badaudela. Batak zein besteak errepertorio zabala dute. Esaterako, bietan izango ditugu argudio-testuak, deskripzio-testuak, azalpen-testuak, informazio-testuak... Taldekatze zehatzagoetara etorritz, komunikazio egoera adina testu-molde sor daitezke, ondorioz, hainbat ikerlari saiatu izan dira diskurtsoak, testuak eta testu-generoak definitzen eta sailkatzen (Larringan, 2012). Lanean sakondu aurretik, horregatik, testua eta testu-generoaren mugen arteko gogoeta egitea komenigarria da, kontzeptuak argitze aldera.

Testuari dagokionez, Larringanek honela definitzen du:

Testua ez da unitate linguistikoa, komunikazio-forma baino. Autonomia komunikatiboa duen unitate txikiena da. Hiru irizpideren arabera definitzen ahal da: a) tamaina gora-behera, testuak biltzen dituen hizkuntza osagaiei nolabaiteko forma errepara dakieke b) testuak, beti ere, mezu bat bideratzen du c) testuak komunikazio kontuekin du zerikusia (Larringan, 2009: 515).

Hortaz, testua komunikazio ekintza den heinean, igorleak hartzailearengan modu bateko nahiz besteko eragin bat sorraraztea izango du xede. Gure eguneroko praktika errealak, ahozkoak nahiz idatzizkoak izan, testuz josiak daudela esan genezake, lagunarteko eztabaidetatik hasi eta autobus geltokiko iragarkietaraino.

Baina praktika errealen heterogeneotasuna kontuan hartuz posible ote da testuen sailkapenik egitea?



Larringanek (2009) posible dela dio, testuak testu-generotan banatzen direla. Hala ere, testu-generoen sailkapenak ez du adostasunik adituen artean. Hona hemen ustezko sailkatze arazoen iturria:

[...] genero bat definitzerako orduan irizpide anitz erabil daitezke (helburua, edukia, eta abar kontuan hartuta), lortu nahi den eragin komunikatiboaren arabera genero desberdinak izango ditugu (epikoa, poetikoak, lirikoak...) erabiliko diren euskarrien izaeraren arabera ere sailka daitezke testu-generoak (eleberria, ipuina, artikulua, erreportajea...), eta eduki tematikoaren arabera ere egin daiteke sailkapena (Larringan, 2009: 519).

Multzokatze ahaleginetan testu-generoen aniztasunari honakoa gehitu behar zaio: nahiz eta genero berdineko testuak izan, eta nahiz eta diskurtso mota berdinez osatutako testuak izan, testu bakoitzak ezaugarri indibidualak izango ditu. Hori dugu testua antzemateko modu bat, testu enpirikoa.

Zein dira, baina, testu bakoitza bat eta bakarra izatera iristeko ekoizleak ematen dituen pausuak?

Ekoizpen orok ezaugarri propio horiek izatera iristeko hauxe da Larringanek proposatzen duen ibilbidea: batetik, norberak testu-molde bat hautatzen du, hots, egokien iruditzen zaion testu-molde bat hartzen du; bigarrenik, testu-moldea lagun duelarik, ekintzari dagozkion moldaera eta ezaugarri indibidualak hartaratuko ditu (Larringan, 2009).

Ahozko modalitatera mugatuz, prozesua berbera da. Norbanakoak molde bat hautatuko du eta komunikazio egoerari dagozkion moldaerak eginez eta barneratuta dituen generoen ereduak erreferentziatuz hartuz, ezaugarri indibidualak gehituko dizkio.

Orain artean idatzizkoaren zein ahozkoaren esparruari dagozkien ezaugarriez aritu naiz. Hala ere, Larringan eta Idiazabalek (2007) dioten moduan, ahozko hizkuntzaren eta hizkuntza idatziaren artean ezberdintasun nabariak ere badaude, hizkuntza idatziaren ekoizpen testuingurua (komunikazio-egoera, helburua, hartzailaren nolakotasunak...) eta ahozkoarena nahiko bestelakoak baitira. Hainbat mailatako aldeak aurki daitezke: sintaktikoak, fonetikoak, produkzio mailakoak, komunikazio mailakoak, informazio mailakoak, mezuak antolatze moduenak...



Ondorioz, ahozko ekoizpenek beren ezaugarri propioak dituzte, eta hori bistaratzeko, jarraian, Larringan eta Idiazabalek (2007) sailkatutako ahozko hizkuntzaren hiru ezaugarri zehatz izango ditut hizpide:

1. Idatzian akats bezala identifikatzen ditugun errepikapen eta erredundantziak ahozko hizkeran presente dauden elementuak dira eta hainbat funtzio izan ditzakete. Beraz, errepikapen eta erredundantzia guztiak ezin dira maila berean sailkatu.
2. Ahozkoaren ezaugarritzat jotzen dira “eraikuntza gaiztoak” deitu izan direnak ere: anakolutoa, etendura, hitz ordenaren aldaketa... hauek arbuiagarri izatetik urrun, ahozkoaren funtzionamendu berezkoa ezagugarritzen dutela erakutsi da.
3. Hanka-sartze eta erroreak. Aurreiritziak gaindituz, ezin esan daiteke ahozkoa idatzizkoa baino akastunagoa denik, bere-bereak diren ezaugarriak baititu eta, beraz, ezin daiteke idatziari dagokion metahizkuntza berdinez deskribatu. Ahozko hizkuntza “ezaba ezina” da, hiztunak mintzatzen ari den bitartean egiten dituen hanka-sartze eta erroreak berriz ere mintzatuz (mezua luzatuz) eta esaldia beste era batera formulatuz soilik “zuzen” ditzake. Larringanen eta Idiazabalen hitzak ekarriz:

Ahozko hizkuntzek eta hizkuntz idatziekin modu desberdinean funtzionatzen dute eta, hala errorearen tratamendua nola haren ebaluaketa irizpide desberdinen arabera egin beharko litzateke. [...] zenbait hizkuntza-unitatek oso modu bestelakoan funtzionatzen dutela ahozkoan eta idatzizkoan (2007: 95).

Hiru ezaugarri hauez gain, ahozkoak baditu idatzizkotik urruntzen duten beste zenbait ezaugarri ere. Esaterako, mezuaren bidalketa kanal ezberdinen bidez egiten denez, hizkuntzazko elementuek, elementu prosodikoek, paralinguistikoek, kinesikoek eta proxemikoek bezainbesteko garrantzia hartzen dute, idatzizko modalitatean gertatzen ez den bezala (Alegria, 2009: 775).

Ezberdintasunen zerrenda osoaren gaineratik, batez ere ahozkoa idatzizkotik abiatuta deskribatu ezin dela argitu da, hau da, izaera propioa duela azpimarratu eta hala aintzat hartu beharko dela adierazi. Dolz & Schnewlyk (1998) dioten bezala, sistema global baten barnean koka daitezke ahozko eta idatzizko hizkuntza nahiz eta bakoitzak bere zehaztasunak izan:





Les différences décisives ne sont pas toujours là où on veut les voir. Il n'y a pas un oral unique qui s'opposerait à un écrit unique; certain écrits (cf. Messagerie Internet) sont plus proches de formes considérées habituellement comme orales, et réciproquement. D'autres distinctions (monologal/dialogal; formel/informel; genres textuels, etc.) contribuent tout autant à donner aux pratiques langagières leur configuration particulière et à engager les locuteurs dans des activités langagières spécifiques (Dolz & Schneuwly, 1998: 61).

Beraz, ahozkoaren eta idatzizkoaren continuum horretan mugak ez dira horren zehatzak. Gainera, posible da, komunikazio-egoera jakin batzuetan bi modalitateak modu osagarrian eraikiak izatea, meza ematean, telebistan albisteak ematean edota irratiz saio bat egitean, besteak beste. Elkarrekintza horietan ahozkoa idatzizkoaren osagarri bilakatzen da eta, aldi berean, idatzizkoa ahozkoaren osagarri. Hauxe da, hain zuzen ere, lan honetan garatuko dudako ikuspegia, izan ere, ahoz gora irakurketak aukera paregabea eskaintzen du idatzizko euskarriak ahozkoaren zenbait alderdi berariaz lantzeko. Bi adierazpideak zertan diren osagarri eta zertan bereizgarri modu sistematikoan lantzeko, zubi lana egiten du-eta ahoz gorak.

## 2.2. AHOZKOA IRAKASKUNTZAN

Irakaskuntzari dagokionez, eskoletan ahozkoaren lanketak tradizio luzea izanik ere, ahozkoaren edukiak eta helburuak gutxi garatu izan dira idatzizko gaitasunekin konparatuz gero. Hau da, De Pietro eta Dolz-ek (2007) esaten duten bezala, ikasgeletako egunerokoan ahozkoak bere presentzia baduen arren, askotan ez da benetan kontuan hartzen, edo zeharka "irakatsi" izan da, sistematizatu gabe.

Ahozkoaren garatze eta definitze urria dela medio, gaur egun hobekien ezagutzen den sistema psikikoa idazketarena da. Sistema psikiko orok egoki gara dadin bitarteko bat behar du, beraz, irakasleen funtzioa da ikasleari ahozkoaren sistema eraikitze behar dituen tresnak bereganatzen utziko dizkioten egoerak sortzea.

Ildo beretik jarraituz, Schneuwlyk eskolaren eginbeharra horrela definitzen du: "Eskolaren eginkizuna oinarritzko teknikak eta kultura-jakintzak menderatzeko behar diren sistema psikiko berriak eraikitze(n laguntze)a da" (Schneuwly, 2003: 140).

Autoreak ahozkoaren irakaskuntzari dagokionez, funtsezko bereizketa hau egitea proposatzen du: alde batetik, irakatsi/ikasteko bide bezala; eta bestetik, irakaskuntza/ikaskuntza objektu bezala. Irakaskuntza/ikaskuntza bide horretan, urteetan uste izan da idatziaren ikaste prozesuarekin batera garatzen zela ahozkoa. Hori horrelakoan, ez da programatu izan eskoletan ahozkoaren aurre- lanketarik eta ondorioz,



planifikaziorik gabe aritu izan da eskola modalitate hori lantzen. Gaur egun, frogatua dago, bestalde, idatzia ikasi eta garatzeak ez duela idatzizkoaren ikasketa eta garapena bultzatzen, hortaz, prozesu horretan esku-hartzea ezinbestekoa izango da garapen egokia ziurta dadin.

Esku-hartu ahal izateko, ahozko mintzaira irakaskuntza/ikaskuntza objektu gisa definitzea beharrezkoa da. Objektuaren ardatz, berriz, egoera errealetan oinarritutako testuen, zehatzago esanda, testu-generoen ekoizpenak ezartzea komeni da; generoa tresna metalinguistiko izateaz gain, hezkuntzarako eta gizakiaren garapen psikologikorako bitarteko (ez helburu) ere badelako (Larringanek, 2009).

Ondorioz, eskolak funtzio eta eragin esanguratsua izan dezake ahozkoaren irakaskuntzaren sistematizazioan.

### 2.3. AHOZKOA OBJEKTU IRAKASGARRI GISA

Gaur egun, ikasketa-plan berrietan ahozko hizkuntzaren irakaskuntza landu beharra azaltzen da (Diaz De Gereñu, 2005). Are gehiago, ahozkoa menderatzeak duen garrantzia ere azpimarratzen da. Eskola formalizatutako eremua denez, bertan landuko diren ahozko generoen artean formalak hobesten dira, idatzari dagozkion generoekin gertatzen den bezala. Horrek ez dakar, ordea, genero eta ahozko testu ez-formalen ezabaketarik edo bazterketarik, kontuan izanda, gainera, euskararen egoera soziolinguistikoak eraginda, beharrezkoak ere izan litezke. Hala ere, esan dugun moduan, eskolan lehenetsuna du genero formalen irakaskuntzak, horretarako instituzio edo leku egokia da-eta.

Genero formalak irakasteko, lehen esan dudan bezala, ezinbestekoa da testua eta testu-generoa lantzea. Are gehiago, testu-genero errealetan oinarritutako praktikak egitea. Horretarako, baina, ezinbestekoa da proiektu bat osatzea, hau da, objektu irakasgarri bat sortzea. Gaur egun pixkanaka material berria sortzen ari den arren, oraindik ere ez zaio behar besteko garrantzia ematen ahozkoa objektu irakasgarri gisa irakasteari. Ibarrak (2012:138) honen berri ematen du:

Hizkuntzen curriculum diseinuari begiratuz gero (OCD, 1992), 90eko hamarkadatik aurrera, hizkuntzen irakaskuntza testu errealetan oinarrituz, testuen ulerkuntza eta ekoizpena hobetu behar dela aipatzen da. Baina, legetan hori agertu arren, gelan nagusiki erabiltzen diren testu liburuetan ez da ikusten aldaketa metodologiko handirik. Ondorioz, eguneroko praktikan testuak ulertu eta ekoitzi ez dira egiten modu esanguratsuan ikaslearentzat, ez daudelako proiektu baten barnean txertaturik. Eta hizkuntzaren lanketa gehiago izaten da hizkuntzaren ezagutzaren



arloan eta ez hainbeste hizkuntzaren erabileran (testuak sortu) egoera komunikatibo ezberdinetan. [...] Beraz, eguneroko praktikan testuen ekoizpena gehienetan ondo kontestualizatu barik dago eta batez ere indarra hizkuntzaren ezagutzan jartzen da.

Esandakoa berretsiz, Garcia Azkoaga et al. (2010) ere ildo beretik doaz: “EAEko Oinarrizko Hizkuntzaren Curriculum berria ezartzen duen 175/2007 Dekretuan aitortzen den bezala, ahozko komunikazioarekin lotutako hizkuntza-trebetasunak erabat baztertuta egon dira eskola-sisteman”. Haien ustez, ahozko hizkuntza alde batera utzi izanaren arrazoiak mugatzeko zailtasunak eta haren irakaskuntza oso argi ez izatea dira. Azken hamarkadetako aldaketaren ondorioz, ordea, testua eta ahozko komunikazioa kontuan hartu eta Gramatika Generatiboko metodoak irakaskuntza-programa, testuliburu eta irakaskuntza prozeduretan aplikatu dira. Beraz, komunikazio-egoera errealetan jarduten ikasteko, ezinbestekoa da ahozko hizkuntza eta haren irakaskuntzari erreparatzea.

De Pietro eta Dolzen (1997) arabera, komunikazio soila lantzea ez da nahikoa helburutzat gaitasun konplexuagoak hartzen badira. Beraz, esan berri dugun bezala, eskolan genero formalak hobetsi behar badira, beharrezkoa da ahozko mintzaportatzearen egituraketa hori eraikitze aldera, ereduak mintzapraktikekin alderatzea. Gainera, haien bidez bidaltzen diren esanahi sozialak ere kontuan hartu beharko dira.

Esanahi horiek norbaiti/norbatzuei zuzentzen zaizkio/zaizkie, hori dela eta, jendaurreko hizketa orotan kontuan hartzeko elementua da hartzailea. Jendearen aurrean aritzeak (testu genero formalez ari gara, betiere) igorleari egoera menderatzen jakitea ekartzen dio, nolabait esatearren, egoeraren fikzionalizatzeko bat gertatzen da: rolak finkatzen dira, errituala jarraitu behar da, publikoarekin harremanu, diskurtsoa zehaztu... Prosodia (intonazioa, azentuazioa eta errima) menderatzea ere biziki garrantzitsua da jendaurreko hizketa egoeretan eta gorputzak berak ere komunikatzeko parada eskaintzen digu.

Jendaurreko testuen ekoizpenean kudeaketak bakarka aritzea eskatzen du hein handi batean: “Jendaurreko hizketaren monologizazioarako joerak ekoizpenaren kontrolaren barneratzea dakar ondorioz sistema psikiko mailan, sozio-historikoki ekoiztutako eredu eta lanabes linguistiko ugarien laguntzarekin” (Schneuwly, 2003: 143).



Hortaz, jendaurreko hizketak, berez, aurretik prestaketa eta lanketa handia eskatzen du elementu askok hartzen baitute parte aldi berean. Hori lortzeko bidean, irakaslearen lana izango da ikasleak testu-generoa eta testuinguru komunikatiboa menderatzeko behar dituen tresnak eskaintzea programazio eta plangintza zehatza erabiliz.

#### 2.4. AHOZ GORAKO IRAKURKETA

Ahoz gorako irakurketa antzinatek praktika sozial eta kulturaletan presente egon den hizkuntza ekintza da: bibliako pasarteen irakurketa, diskurtso politikoak, konferentziak, irrati edota telebistako berriak, irakurritako ipuinak, norbaitek irakurtzeko gaitasunik ez duenean irakurtzen dizkioten egunkari edo aldizkariak... eta beste hainbat praktika izenda daitezke (Dolz eta Schnewly, 1998).

Eskolan bertan ere presentzia handia izan du eta izaera eta funtzio propioak bete izan ditu irakurketa ozenak: funtzio ludikoa, funtzio estetikoa, irakasteko funtzioa... Ikasgeletako eguneroko komunikazio egoeren parte izan arren, ordea, egoera hauek ez dira ahozko gaitasunak garatzeko baliatu, esan nahi da, lanketa sistematizatu gabe izaten dela maiz oraindik, helburu konkreturik ez baita finkatu irakaskuntzarako baliabide bezala jorratzeko. Ikasleek, ondorioz, ez dute menderatzen ahoz gora irakurketa esparru formalean aritzeko moduan. Eskolan bilatzen diren gaitasunak garatze bidean, programazio eta planifikazio baten bitartez irakastea beharrezkoa dirudi, betiere, komunikazio egoerei lotutako testu-generoen irakurketari lotuta.

Dolz eta Schnewlyk (1998) diotenez, ahoz gorako irakurketan irakurlearen betebeharra entzuleek ez duten testu baten forma eta eduki testuala komunikatzea da. Irakurlea da testuaren eta entzulearen arteko zubia, beraz, bere lana ahalik eta transmisiorik onena ziurtatzea da.

Gure artean, Igerabidek ere zubi lana azpimarratzen du:

Testuaren eta ahozkotasanaren arteko lotura kontaktetan dago, noski, ozenki egindako irakurketan alegia. Zubi hori daukagu lantzeko idazmenaren eta ahozkotasanaren artean; ahozkotasunetik idazmenerako bidean, erraztasuna, gogoia, erregistro bien arteko desberdintasuna nabaritzea, hori dena, ahalbidetzen da; alderantziz, idazmenak horrela ez du ahozkotasuna zeharo estaltzen eta arlo horretarako bidea seinalatzen digu irakurketa ozenak; zubi interesgarria da, beraz, bai ahozkotasunetik idazmenera pasatzeko, bai idazmenean trebatzean ahozkotasanarekiko loturak ez etenarazteko (Igerabide, 1993: 46-47).



Dolz eta Scheuwlyren eta Igerabideren ikuspuntuak, berriz, Diaz De Gereñuk (2002) Larringanek zubi lanari buruz dioenarekin bateratzen ditu. Hau da, haren ustez, zubi-lan hori bikoitza da: alde batetik, ahoz goraren bitartez, ahozkoaren eta idatzizkoaren arteko interakzioa ahalbidetzen da; bestetik, ipuinaren edo narrazioaren bitartez, bi adierazpideak aktibatzen dira. Nahiz eta ipuinak idatzizko oinarria izan, izatez asko baitu ahozkoaren tradizioetik. Ondorioz, Diaz De Gereñuk (ibid.) zubi-lan hori bikoitza dela baieztatzen du.

Ahoz gora lantzean, beraz, testu-generoaren hautaketak zeresan handia du, ez baita berdin ipuin baten ahoz gorako irakurketa egitea, berri bat ahoz gora ematea irratian edo eta ahozko azalpen bat egiten dihardugula definizio bat ahoz gora irakurtzea, esate baterako.

Hortaz, irakurketa ozena ez da erlazio grafo-fonikoen deszifratze hutsa, ez baita irakur gaitasunekin batera garatzen. Haratagoko dimentsio bat duenez, testu-genero zehatz baten ezaugarriak barnerratzeko beste hainbat baliabide menperatu behar dira. Beraz, horiek ere landu egin behar da, edo horiekin lotuta.

#### 2.4.1. Zertarako irakatsi?

Baina, zergatik da garrantzitsua eskolan objektu irakasgarri gisa aurrez landutako irakurketa ozena irakastea? Ba al du eragin baikorrik ikasleengan? Hona hemen Diaz de Gereñuk (2002) proposatutako onuren zerrenda:

- Ikasleak bere buruarekiko konfiantza areagotzen du.
- Testu mailako lanketa bultzatzen du, testuaren osotasuna kontuan hartuz.
- Berbazkoak ez diren baliabide guztiei arreta gehiago eskaintzeko aukera ematen du.
- Irakurleak berak testu oso baten ekoizpenaren ardura hartzen du.
- Ahozko ekoizpenerako zailtasuna sortzen duten hizkuntz formekin jarduteko modua eskaintzen du.
- Ikaslea ahoz ekoizten duenaren eta entzumenaren bidetik ulertzen duenaren arteko aldea, neurri batean behintzat, txikiagotzeko gai da.



Komunikazioari horrenbesteko garrantzia ematen zaion mende honetan, presentzia handia du gizartean aritzeko modu honek, egunerokoan aurki ditzakegu albisteak, mahai inguruak, ipuin kontaketak...

Gainera, irakurketa ozenak testu-generoen gaineko lan jakin bat ahalbidetzen du, komunikazio adierazpen baten irakaskuntza.

#### 2.4.2. Zer irakatsi?

Irakurketa ozenean irakatsi daitezkeen dimentsioen artean aurkitzen dira (Dolz eta Schnewly, 1998):

- Komunikazio egoera

Igorleak bere ekintza komunikazio egoerara egokitu beharko du eta taularatzea egokitzea ere garrantzitsua da: hartzailearen presentzia edo ausentzia (esaterako irratiko entzumenak), bolumen eta tinbrearen egokitzea, testua produkzio lekura egokitzea... Guzti hau irakurlearen kudeaketaren menpe egongo da.

- Testuaren zentzua

Irakurleak entzuleari diskurtso ezberdinak erabiliz testuaren zentzua transmititu beharko dio. Ondorioz, modalizatu eta ahotsa egokitzen jakin beharko du intonazio espresibo eta pausen erabilera egokia eginez.

- Ahotsaren kudeaketa

Idatzia deszifratu ahal izateko, erlazio grafo-fonetikoen erabilera menperatu beharko da. Horrez gain, diskurtso fonikoaren hartzea ona izateari adi egon beharko zaio: esaldi/hitz amaierako artikulazioa, ahotsaren bolumena, azentuen bidezko puntuazioa...

Nik zehazki, ipuinen irakurketa ozena landuko dudanez, ezinbestekoak izango zaizkit batetik ahoz goraren adierazpidearen berezitasunak aintzat hartzea eta, bestetik, ipuinaren irakurketaren berezko ezaugarriak aintzat hartzea genero bereizgarria den aldetik.

#### 2.4.3. Nola irakatsi?

Testu mailako lanketa egin nahi dugularik, testu-generoak oinarri izango ditugu Sekuentzia Didaktikoen metodologiaz. Kasu honetan, lehenago azaldu dudana zubi-lana



ahalbidetzen duela-eta, ahoz gorako irakurketaren lanketarako narrazio-testua, zehazki ipuina, hartu dut genero gisa.

### *Narrazio-testua: Ipuina*

Hasteko, saia nadin pixkanaka aukeratutako testu-genero jakin bat definituko dugu: zer da ipuina? Genero arrunta iruditu arren, uste baina zailagoa da mugatzen, besteak beste ipuinaren hirurogei definizio baino gehiago badirenez (Diaz de Gereñu, 2005) objektu aldakorra eta heterogeneoa dela ondoriozta dezakegu. Sarri, gainera, ipuinaren ahozko dimentsioak idatziaren adierazpidearen mende interpretatu dira (Diaz de Gereñu, ibid.).

Aurretik esan bezala, testu-generoei aldaketa eta egokitzapenak egiten zaizkie komunikazio-egoeraren arabera, hau da, egokitze bat jasaten dute. Moldaketa horiek sarritan sozialak dira, gizarte bakoitzak bere behar eta adierazpen moduei buruzko errepresentazioak egiten baititu (Larringan, 1992).

Genero sozial horien artean koka dezakegu ipuingintza. Soziala izateaz gain, kontuan hartzeko beste bi ezaugarri ere baditu (Larringan, 1992):

- a) Ipuingintza (kontularitza) hitzez gauzatutako ekintza bat da;
- b) Soziala da, izaeraz eta egitez;
- c) Kategorizapengarria da, hots asmagarria, zirriboratu ahal da eta kokatu, bereizgarria eta berezitua denez.

Ipuin edo kontakizun jakin bat jendaurrean partekatzea komunikazio elkartruke bereizgarria da. Nola defini daiteke, beraz, ipuin baten ahozko kontaketa? Diaz de Gereñuren (2005) hitzak ekarriz:

*Kontu* edo *ipuin* bat (programa narratibo bat) *jendaurre* batean eta momentu jakin batean, bere burua kontalaritzat duen baten eskutik eta *ahoz* gauzatzen den hizkuntza jarduera bezala ulertzen dugu. Kontagintza edo ipuingintzaren bidea jarraitzen duena da ahozko kontaketa diogun hau, beti ere, eskolan gertatzen den moduetan eta ahozkoaren eremua dugularik gogoan (Diaz de Gereñu 2005: 32).

Badira kontaketa komunikazio estetiko gisa definitzen duten autoreak ere, Igerabide (1993) kasu. Bere ustez, kontaketa eta istorio bakoitzak komunikazio berri bat sor dezake. Gainera, garrantzia handia ematen dio ahozkoaren eta zehazki ipuinaren dimentsio estetiko lantzeari eskolan. Esan bezala, ahozkoaren eta idatziaren



arteko elkarreragina sustatzeko helburu ludiko-estetikoa duten ipuin bidezko hizkuntza praktikak aukeratu ditugu, bada horretarako arrazoi didaktikorik eta pedagogikorik eta.

Egoerarekiko abstrakzioa, deserdirapena eta tinkotasuna medio, ipuin bidezko hizkuntza praktikak ahozkoaren eta idatziaren arteko artikulazioa errazten du, zubiarena eginez. Hala, ipuin bidez errazago joan ahal da ahozkotik idatzira eta idatzitik ahozkoa (Larringan, 1992: 504).

Ipuin kontaketaaren egiturari erreferentzia eginez, makroekintza komunikatibo bezala aurkezten dute, besteak beste Diaz de Gereñu, Itziar Idiazabal eta Luis Mari Larringanek (2007), hau da, ipuinaren antolaketa kanonikoaz haratagoko egitura bat duela baieztatzen dute. Ahoz ipuin bat (edo gehiago) irakurtzeko komunikazio ekintzak ere, ipuinaz gain (egitura narratiboaz gain) berezkoak ditu beste gaitasun eta baliabide batzuen erabilera: errepikapenak eta erredundantziak, kantak, balorazioak, interlokuzioari ekitea, elkartruke motaren aukeraketa, entzuleari aurrerapena...

Beraz, ipuinaren egitura tradizionala gainditu egiten da ahozko komunikazio egoerak eskatuta, eta maila bereko garrantzia hartuko dute komunikazio ekintzaren beraren sarrerak eta amaierak.

Laburbilduz, ipuinaren ahoz gora irakurketan trebatzeko, ikasleei testuingurua kontuan hartzen eta ipuin kontaketa ekintzaren mekanismo eta baliabideak era antolatuan eta koherentean erabiltzen irakatsi beharko zaie

Esan bezala, ipuinaren helburu estetikoek, elkarreraginari begira jarrita betiere, lehenasuna izango dute Sekuentzia Didaktikoa egituratzean, generoak hala eskatzen baitu.

## 2.5. SEKUENTZIA DIDAKTIKOAREN METODOLOGIAZ

Atal praktikoari ekin aurretik, Sekuentzia Didaktikoa<sup>1</sup> zer den eta zertarako den ekarri nahiko nuke gogora.

Larringan eta Idiazabalek honela definitzen dute Sekuentzia Didaktikoa:

SDa jarduera multzo bat da, segidan antolatua, egituratua eta artikulatua beti ere helburu pedagogiko jakin batzuk lortze aldera bideratutako lanabesa; hasiera eta bukaera zehatzak izan ohi ditu eta bi mutur horien berri izango dute parte-hartzaileek, hots, hala ikasleak, nola irakasleak (2012: 17).

---

<sup>1</sup> Aurrerantzean SD.






Bronckartek (1996) dio, hizkuntza komunikazio-tresna eta elkarreragin-tresna bat baino gehiago dela, hau da, testuinguru jakin batean gauzatzen den giza jarduera, eta gainera, subjektua eta mundua harremanetan jartzeko modua dela. Norbanakoen arteko harreman guztietan dago mintza-jarduera bat, eta mintza-jarduera hori, testuan eta diskurtsoan gauzatzen da. Testuak hizkuntzaren erabilera sozialaren isla diren neurrian, haien lanketa komunikazio-egoera errealean oinarritzen da. Esan dugun moduan, SDa dugu testu-generoak irakasteko tresna (Diaz de Gereñu eta Garcia-Azkoaga, 2012).

Beraz, Bronckartek azpimarratzen duen moduan, eskoletan testu errealean irakaskuntza gauzatzeko eta komunikazio-egoera erreal horiek irakasteko modu eraginkorra, SDak erabiltzea da.

Irakaskuntzaren objektu izango den hizkuntza ekintza hori, beraz, testu bidez datorkigu, esan nahi da, genero batekoa edo bestekoa izango da. Dolz eta Schneuwlyren (1998) arabera, zentzu horretan, testu-generoa lanabes didaktiko bilakatzen da hizkuntzaren ikas/irakaskuntzarako.

Testu-genero hori, baina, ez da hala nola txertatzen SDan. Landuko den generoaren eta, bereziki, ikasleen gabezien arabera, ariketa ezberdinak sortuko dira. Hala ere, SDetan bada, landuko den testu-generoa landuko dela, pausoz pauso jarraitu beharreko antolaketa zehatza. Lau dira proiektuan zehar bereizten diren etapak (Larringan eta Idiazabal, 2012):

1. Egoeraz jabetzeko etapa (EJ). Proiektuaren aurkezpena eta onartzea. Testuinguru jakin batean kokatua eta ustez ikasleei ere axola zaiena.
2. Hasierako ekoizpen etapa (HE). Aurretestua
3. Tailerren eta moduluen etapa (TT/MM). Edukiari eta formari buruzko informazioa eskaintzen da, hau da, edukien eta formen lanketa egiten da.
4. Bukaerako ekoizpena, errebisioa, eta ebaluazio etapa (BEE).



Eskema honetan ikus daitekeen bezala, lehenik eta behin, irakasle eta ikasleen artean proiektu zehatz bat aurrera eramateko hautua adosten da, kontsentsu bat bilatzen da. Ondoren, hasierako ekoizpenaren bidez, irakasleak berak ikasleen jakintza maila aztertu ahal izango du. Ikasleen gaitasun eta gabeziak definitzen direlarik, irakasleak ariketak gelako batez besteko jakintza maila horretatik abiatuta eraikiko ditu, beraz, ikasleek dagoeneko badakitena izango da abiapuntu. Nahi beste eta behar beste moduluren ostean, bukaerako ekoizpena burutuko dute ikasleek. Horrela, hasierako ekoizpena eta bukaerako ekoizpena alderatuz, ikasle bakoitza bere prozesuaren jabe eta aurrerapenez kontziente izatea lortzen da. Hori guztia osatzeko, modulu guztien amaieran kontrol zerrenda bat osatzen da, amaierako ekoizpenean ikasleak erabili ahal izango duena. Kontrol zerrenda honen helburua, ikasitakoa izatea da, nolabait esatearren, bukaerako ekoizpenean kontuan hartu beharrekoa zehazten da bertan.

Hona hemen SD baten ezaugarri orokorrak (Larringan eta Idiazabal, 2012):

- Ikasgelako eta ikasgelaren proiektua da; esan nahi da, protagonisten artean zerbait konpartitua.
- Irakasleak, proiektuari eutsiz, hizkuntza jarduera jakin bat, alegia testu-genero bat ekoizteko eskatuko die ikasleei;
- Hasierako lan hori errealia zein fikziozkoa izan daiteke;
- Jarduera bere osotasunean zein atalka burutu ahal da;
- Lanaren ardatza ikasleen testua edo ekoizpena da, berori baita benetako elementu erregulatzailerik;



- Hasierako egoera funtsezkoa da: hala motibazio gisa, nola azken produkzioarako elementu gidatzaile den aldetik.

Hau guztia kontuan izanik, egia da gelako proiektu bat garatzea lan konplexua dela. Hala ere, bistan da testu-generoa tresnatzat harturik hizkuntza ekintza erreal bat lantzeko aukera ezin hobea eskaintzen digula SDak. Hainbat onura ditu bai irakaslearentzat eta baita, batez ere, ikasleentzat ere. Ondorioz, metodologia honen araberakoa izango da ondoren eraiki dugun SDa.

### 3. ATAL PRAKTIKOA

#### 3.1. TESTUEN ANALISIA

##### 3.1.1. IKASLEEN PROFILA ETA KONTSIGNA

Ikasleen profilari erreparatuz, Hernaniko Langile ikastolako Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleak dira parte hartu dutenak. Hamar-hamaika urteko 17 ikaslez osatutako D ereduko ikasgela, hain zuzen ere.

Ezer baino lehen, testuinguru soziolinguistikoa laburbilduko dut hitz biz. Hernani Gipuzkoako ipar-ekialdean dagoen udalerrria da. Donostiatik bederatzi kilometrora kokatzen da eta Donostia, Astigarraga, Arano, Lasarte-Oria, Urnieta, Elduain eta Errenteriarekin egiten du muga.

Herri honek duen kokapenagatik, soziolinguistikoki euskalduna dela esan dezakegu, hala adierazten baitute soziolinguistika klusterrak eginiko 2011. urteko kale neurketek: hizkuntza gaitasuna %55,8 eta erabilera erreal %39,1<sup>2</sup>.

Aurre-testuak eskuratzeko, ikasleei egokitutako kontsigna bat sortu genuen. Kontsigna hori ahoz emana izan zen:

Ospitalean dauden 3-5 urte bitarteko haurrei ipuina kontatu beharko diezue. Hori dela eta, ipuin kontalari izango zarete gaurkoan. Denek ezagutzen al duzue Txanogorritxoren ipuina? Bada horixe izango da zuek kontatu beharko duzuen. Guk, hori egin bitartean, ahotsez grabatuko dizuegu eta ondoren, zuen grabazioak ospitaleko haurrei jarriko dizkiegu une batzuez bederen ospitaleko egonaldia arintzeko.

Gure corpusa bildu eta aztertu ondoren, SDaren ondo-testua biltzeko, hastapeneko kontsigna pixka bat moldatzea legokeela uste dugu komunikazio egoera

<sup>2</sup> Kontsulta [2015-09-14]: <http://euskara.buruntzaldea.eus/espanol/poblaciones/hernani/noticias/euskerakgora-hernanin>.



irudikatze aldera. Zehaztasuntxo batzuk gehitu dira azpimarratzeko ospitaleko haurrek entzumenez baino ez dutela jasoko testua:

KONTSIGNA:

*Donostiako ospitaleak duela gutxi proiektu berri bat jarri du martxan. Donostiako ikastoletako ikasleek ospitalean dauden 3-4 urte bitarteko haurrei ipuinak ahoz gora irakurriko dizkiete hileroko irratsaioan. Datorren hilabeteko saioa egitea gure ikasgelari egokitu zaio eta "Txanogorritxo" ipuina landuko dugu. Zein da proiektu honen helburua? Bada, haurren ospitaleko egonaldia arintzea, finean, haiak gozatzea. Horretarako, kontuan hartu beharko duzue haurrek zuen ahotsa soilik entzungo dutela, hortaz, ahalik eta modu adierazkorrean irakurriko duzu ahoz gora ipuina entzuleak ondo jarraitu, ulertu eta gozamen hartu dezan ipuina entzuterakoan.*

Kontsigna berri hau gehituko dugu SDaren azken ekoizpena bideratzeko. Aurre-testuak jaso aurretik, ordea, lan metodologia bat proposatu genien. Lehenik eta behin, ikasleak lau taldetan banatu genituen. Talde bakoitzak Txanogorritxoren ipuina idatzi behar izan zuen orri batean, gerora ahoz gora irakurri ahal izan zedin. Gero, talde bakoitzeko boluntario bat eskatu genien ahoz gorako irakurketa egiteko prest egongo zena.

Egia esan, ez genuen parte hartzea lortzeko arazo handirik eduki, izan ere, lau ikasleek beren aurre-testuak ekoitzi ondoren beste hainbestek eskaini zuten beren burua eta, hori dela eta, zortzi aurre-testu jaso ahal izan genituen.

Hainbat faktorek eragina izan zuten aurre-testuen ekoizpenean. Hona zerrenda:

1. Guk geuk helburua zein zen, hau da, zer lortu nahi genuen lauso izateak metodologia kaltetu zuen. Ikasleak talde ezberdinetan banatu genituen eta talde bakoitzak bertsio bakarra adostu behar izan zuen. Agian, bakoitzaren bertsioari eusteak aberastasuna eragingo zuen azken ekoizpenetan, nahiz eta, beti den aberasgarri talde lanaren ekarpena norberarenean ere. Edozein kasutan, sormen lana izanik, beharbada beste aukera bat egingo genuke orain, ikasitakoaren bidetik. Edonola ere, guk egin genuen moldeari eutsiz gero, bertsio bakarra adosterakoan ikasleei aukeraketarako irizpide batzuk eskaintzea egokiago litzatekeela iruditzen zaigu.
2. Aurre-testuek erakusten dutenari jarriki, ikasleek ez zuten idatzitako ipuina egoki erabiltzen jakin, ahoz gora irakurketa gauzatzerakoan. Gehienek ahoz gora



irakurtzeko erabili beharreko idatzizko euskarria (paperean idatzitako testua) ez zuten erabili, beraz, ipuina “buruz” kontatu zuten. Baliteke beste ipuin ezezagunagoren bat eskaini izan bagenie oinarri idatzia gehiago erabili izana. Dena den, ikasleek eginkizunari erantzun zieten moduak eta testuek eurek adierazten digute, ahoz goran idatzizko euskarriak egiten duen zubi lana ez zutela ondo ezagutzen, edo ez zekitela hartaz baliatzen. Gainera, gaiaren berritasuna edo kontakizun konkretua baino jendaurrean ikasleek irakurtzerakoan ahoz gorak eskaintzen dituen baliabideak ezagutu ditzaten interesatzen zaigu. Halaber, bertsio hain ezaguna adierazkortasunez eta modu bakarrean irakurtzeko erronkak, gozatzeko moduan jendaurrean ahoz gora irakurtzen ikasteak, badu bere interesa. Beraz, “zer” kontatu bezain garrantzitsua izan daiteke, “nola” kontatu. Are gehiago, ezaguna den ipuin bat besteengandik ahalik eta berezien edo ezberdinen kontatzea helburu polita izan daitekeela iruditzen zaigu.

### 3.1.2. CORPUSEKO IKASLEEN GAITASUNAK ETA GABEZIAK

Behin korpusa jaso ondoren, aztertutako gaitasun eta gabeziak deskribatzen saiatuko naiz. Hasteko, gaitasunak izanen ditut hizpide eta, jarraian, identifikatutako gabeziara joko dut.

Hainbat dira ikasleen transkribaketetan aurki daitezkeen **gaitasunak**. Hona hemen batzuk:

- Euskararen morfosintaxia ongi menperatzen dute, SOA hurrenkera, egitura ergatiboa, postposizioen erabilera, aditzaren eta argumentuen arteko komuntadura...
- Hotsen deszifratzea egokia da, hau da, ez dute arazo grafo-fonikorik. Euskararen hots sistema ezagutzen dutela eta, ezaugarri fonetiko eta fonologikoak menperatzen dituzte, beraz, hotsak ongi artikulatzeko gai dira.
- Solasa eta narrazioa bereizten dituzte eta, horrez gain, biak zuzen txandakatzeko gai dira.
- Amaierako formula erabiltzen dute:

(1) *amonak festa bat antolatu zuen eta handikan aurrera pozik bizi izan ziren* (T1)



(2) *eta guztiak poz pozik bizi izan ziren* (T2)

- Txanogorritxo eta otsoaren arteko solasean intonazio aldaketak nabari dira:

(1) *amona amona ze belarri haundiak dituzun ↑ zu hobeto entzuteko dira esanzion /// ta e em txanogorritxuk esan tzion // amona amona ze sudur haundia duzun ↑ / zu hobeto usaintzeko da // amona amona ze begi handiak dituzun ↑ / zu hobeto ikusteko // amona amona ze aho handia duzun ↑ / zu hobeto jateko* (T3)

(2) *zergaitik duzu hain sudur handia? ↑ / zu hobeto usaintzeko / zergaitik dituzu hain belarri handiak? ↑ / zu hobeto entzuteko / zergaitik dituzu hain begi handiak? ↑ / zu hobeto ikusteko / zergaitik dituzu / duzu hain aho handia? ↑ / zu hobeto jateko* (T5)

Esan beharra dago, corpuseko zortzigarren transkribapenean, intonazio aldaketak aurki daitezkeela Txanogorritxoren eta otsoaren elkarrizketaz haratago ere:

(3) *otxoak galdetu zion nola izena duzu? ↑ eta nora zoaz? ↑ [...] tok tok! / nor da? ↑ galdetu zuen amonak [...] tok tok! / nor da? ↑ txanogorritxo naiz ireki atea mesedez!* (T8)

Hala ere, orokorrean, intonazio adierazkorrik eza da gailentzen dena, esate baterako, eszena aldaketan, ekintzen nolakotasuna adierazteko orduan... ez dute baliatzen. Tonua nahiko monotonoa izateak ez du entzulearen arreta mantentzen laguntzen eta komeni da ekintzen aldaketaren arabera intonazioa aldatzea. Ondorioz, SDko moduluetako batean landuko dut.

Aurretik esan bezala, zenbait **gabezia** ere aurki daitezke:

- Ikasleek, ipuina irakurtzen ari diren bitartean, beren burua entzun eta noizbehinka zuzenketak egiten dituzte. Kasuren batean, ordea, askotxo dira eta baliteke behin eta berriz zuzentze hori aurretiko prestaketa eskasaren ondorio izatea. Ez da gauza bera auto-zuzenketa ahoz gora irakurtzean eta berehalakoan ipuin bat kontatzean. Izan ere, lan honen lehen atal teorikoan azaldu den moduan, ahozko solas arruntean edota bestelako generoetan ere hein batean (irradi elkarrizketa batean, debate batean...), autozuzenketak egitea berezko



ezaugarria da. Ahoz gora irakurketan, ordea, aurreikusi egiten den lanketa baten berbazko emaitza izanik (lapsusak ez badira behintzat) ez dira hain onargarriak. Are gehiago, aurrez ongi landua bada, ahalik eta auto-zuzenketa gutxien egitea esperoko da testu-genero honetan. Honek baieztatzen du ahoz gora irakurtzea erabat ondo baliatzen ez dakitela, ez dutela ondo irudikatzen eta, ondorioz, ez dutela alde zuzenetik landu:

(1) *Amon Txanog Otxoak esan zion lasterketa bat egin nahi zuela.* (T1)

(2) *Zergatik dituzu / duzu hain aho handia?* (T5)

(3) *Txanog Ama / Txanogorritxoren Amak esan zion*

*gal / erantzun zion*

*zergaitik dituzu hain sudur handi / zergatik dakazu hain sudur handia?* (T6)

- Hasiera zuzena egiten dute, entzulearekin batera eraikitzen den elkarrekintzari sarrerarik egin gabe. Irakurketa ozena burutuko dela kontuan hartuz, komenigarria da hartzailea erakartzeko helburuarekin sarrera moduko bat egitea, zer datorren, zer irakurriko den (ipuina, poesia...) aurreratzeko eta jakinarazteko. Entzuleak prestatu eta trantsizio baten bitartez fikziora eramatea lortuko da sarrera egoki batekin, corpuseko testuetan, ez baita komunikazio alderdi hau agertzen. Zuzenean ekiten diote ipuinaren hasierako egoerari:

(1) *Txanogorritxu / bazen behin neskatxa bat / e:: txanogorritxu izenekoa / am-amarekin bizi zela* (T2)

(2) *Txanogorritxo // bazen behin neskatilla bat txanogorritxo izena zuena* (T7)

- Hasiera formulen erabilera, oro har, eskasa da eta batzuetan ez dira egoki erabiltzen. Hasierari erreparatuz, *bazen behin* testu antolatzailea da nagusi eta honen bitartez pertsonaia nagusiaren aurkezpena egiten da:

Hasiera:

(1) *Neskatxa bat txanogorritxo izena zuen* (T4)

(2) *Bazen behin txanogorritxu izeneko nexka* (T1)



Amaiera formulen kasuan, lehen aipatu bezala, erabili erabiltzen dituzte. Kontua da, ordea, denek amaiera formula bera erabiltzen dutela. Ondorioz, bai hasiera eta bai amaiera formulak hobetzeari eskainiko zaio SDko moduluetakoko bat.

- Pausak aztertuz, sarritan arnasketaren beharrak eragindako edo perpausaren araberako pausak direla ondoriozta daiteke; beste batzuetan, nola jarraitu ez jakiteak pausa luzeak eragin ditu. Ahoz gorako irakurketan, testuaren haria jarraitze aldera, pausak beharrezkoak dira, baina, aurretikako lanketa bat eskatzen dute (noiz eta nola egin neurtu behar dira) leku egokian egin daitezen, testuaren zentzuzko-unitateak ebakiz.
- Onomatopeien erabilera oso urria da, 8. Transkripzioan soilik erabiltzen dira:

(1) *tok tok!* / *nor da?* ↑ (T8)

Onomatopeiek, hitz jokoeak, musikak eta kantuek dibertitzeko, kantatzeko, hitzekin jolasteko... aukera eskaintzen dute ahozko ipuinetan. Hortaz, komunikazio estetikoaren parte dira. Hartzailleak 3-4 urte bitarteko haurrak diren heinean, inportantea da errekurso estilistikoak erabiltzea, Diaz de Gereñu, Idiazabal eta Larringanek (2008) dioten bezala, kontaketa ekintzan berebiziko garrantzia hartzen baitute. Formulez gain, gehienetan musika eta kantua ere josten dira diskurtsoan zehar. Hauek erabiltzearen ondorioz, saioak bestelako dimentsio bat hartzen du eta, beraz, ekarpen espezifiko bat egiten dute.

- Corpusean elementu paratestualen bidezko eta bestelako diskurtsoa indartzeko baliabideen (adibidez, errepikapena) urria da. Zehazki, azken ikasleak soilik modalizatzen du testua.

Modalizazioa, honela biltzen du Agirre Berezibarrek:

Modalizazioa, enuntziatu bati buruz esatariak ageri duen balioztapena da, jarrera konkretu batez hura determinatzen duena. Adierazgai objektibo arruntari ezartzen zaion eranspen subjektiboa dugu beraz (Elosegi & Esnal, 2004).

Ahozko hizkeran errepikapenak sarritan agertzen zaizkigu. Errepikapenak hainbat motatakoak izan daitezkeen arren, funtzio espezifikoak dituzte: “[...] memoriaren mugak eta denboraren presioak sortutako eragozpenak gainditzeaz gain, [...] funtzio erretoriko edo poetikoa ere izan dezakete, baita hizketaldia





modu eraginkorragoan, azkarragoan eta neke gutxiagorekin burutzeko funtzioa ere (Larringan & Idiazabal, 2008: 90).

Testuak aztertuz, ikasleek oso gutxi erabiltzen dute errepikapena. Nolabait esatearren, testuei indarra ere falta zaie, beraz, beste komunikazio estrategia bat ikas dezaketela uste dut.

Beraz, enuntziatzaileak modalizatu egiten duenean, esaten duen horrek balio erantsi bat hartzen du, iruzkin edo ebaluazio bat izan daitekeena. Elozegi eta Esnalek (2004) dioten bezala, hiztunak “zer” dioen baino gehiago interesatzen zaigu “nola” dioen, hau da, zer-nolako jarreraz edo intentzior ematen duen informazioa enuntziatzaileak. Ondorioz, hizkuntza bat ikastea ez da komunikatzen ikastea soilik, baita modalizazioa bezalako estrategiak erabiltzen ikastea ere.

### 3.2. SEKUENTZIA DIDAKTIKOA: IPUINEN AHOZ GORA IRAKURKETA

Behin gaitasun eta gabeziak aztertu ondoren, ekin diezaiogun eraiki dugun SDaren azalpenari. Sekuentziek nahi adina modulu izan ditzaketen arren, testuetako gabeziak oinarri hartuta, lau moduluk osatzen dute jarraian datorrena. Gabezi horien artean lehentasuna eman diet honako alderdi hauei, hurrenez hurren: komunikazio egoeraz jabetzea, zehazki ahoz gora zer baliabide mota den eta ahozko eta idatzizko adierazpideak nola uztartu lantzea; ipuin irakurketarako hasierako eta amaierako formulez baliatzea; modalizazioa eta testuen bukaerako ekoizpena.

Lehenengo modulua: Ahoz gora irakurtzea zer den landuko da lehenengo moduluan. Hortaz, oinarritzko ezaugarriez jabetu eta aurreikustera gidatutako ariketak egingo dira. Bereziki, ahozko eta idatzizko adierazpideak ahoz gora egiteko nola uztartzen eta baliatzen diren. Horrez gain, hasieratik bertatik, proiektuaren aurkezpena ere egingo zaie ikasleei.

Bigarren modulua: ipuinetako hasiera eta amaiera formulak lantzea izango du helburu. Irakurle edo entzulea trantsizio moduko baten bitartez modu ludiko batean sartzea ipuinera. Beraz, garrantzitsua da ipuinarekin zuzenean hasi aurretik nolabaiteko erritual edo sarrera hori burutzea, gozamenaz, komunikazio elkartruke jakin bati helduko zaiola jakinaraziz entzuleari. Bide batez, arreta jartzeko deia ere egiten zaio entzuleari, eta hartarako denbora ere behar delarik ahozkoan, denbora ematen zaio entzuleari presta dadin (Larringan et al., 2007). Berdin, ipuina amaitzeko garaian.



Gozamen bidezko komunikazio elkartruke hau ongi burutu dadin, hasiera eta bukaera formulak ezagutu eta kudeatzen jakitea beharrezkoa izango da. Baliabide horiek eskaintzeko intentzioz osatu dugun hasiera eta amaiera formulak landuko dituen bigarren modulua.

Hirugarren modulua: Modalizazioa lantzea ez da lan erraza. Hala ere, ipuinarekin lotuta, hainbat egoera edo emozio ahots ezberdinak erabiliz adieraz ditzakete tentsioa, susmoa, poza, harridura. Horretarako, lehen pausua ahotsak identifikatzen jakitea izango da eta baita ere ekintzekin duten loturak, edo ekintza eta emozioak adierazteko erabili daitezkeen baliabide ezberdinak. Horregatik, hirugarren modulua ipuinen modalizatzea hobeto gidatzeko bideratuko dut.

Laugarren modulua: Sekuentzia osoan zehar ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izango dute, azkeneko modulua bukaerako ekoizpenaren prestaketarako ariketek osatzen baitute. Hau burutu ahal izateko, modulu bakoitzeko kontrol zerrenda izango dute lagun.

Azkenik, sekuentzia didaktikoari ekin aurretik SDa ulertzeko beharrezkoak diren metodologiako bi ohar:

1) SDko ariketa zehatzak diseinatzeko, audio-material bat irudikatu ditugu. Jakina da, ahozkoa lantzeko beharrezkoa bezain zaila dela ahozko materiala behatzeko aukera ematea ikasleei (Dolz & Schneuwly, 1998). Guk material horren izaera egokitu eta asmatu dugu, nahiz eta grabazioak ez ditugun ematen SD-arekin batera. Beraz, *A entzumena* eta *B entzumena* gisa izendatuko ditugun entzungaiak azaltzen diren bakoitzean, lan honen irakurleak ipuin beraren bi grabazio ezberdin irudikatu beharko ditu. *A entzumenean* ipuin baten ahoz gora irakurketa modu eta baliabide egokiekin gauzatzen da eta *B entzumenean*, berriz, gure corpuseko ikasleen testuetan agertzen diren gabeziak agertzen dira. Ondoko taulan laburbilduko ditugu.

1. taula: SDan zehar irudikatu beharreko bi entzumenak eta haien ezaugarriak:

<b>A ENTZUMENA (Hiru txerritxoak)</b>	<b>B ENTZUMENA (Hiru txerritxoak)</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurkezpena</li> <li>• Hasierako formula</li> <li>• Modalizazioa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurkezpenik ez</li> <li>• Hasierako formularik ez</li> <li>• Modalizaziorik ez</li> </ul>



<p>- Narratiboak diren atalak:          Deskribatzen da korrika          doazela etxe batetik bestera</p> <p>- Elkarrizketak:          Otsoa eta txerrien artean          Txerrien artean</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Pausak</li> <li>• Musika</li> <li>• Amaierako formula</li> <li>• Agurra</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pausarik ez</li> <li>• Musikarik ez</li> <li>• Kanta</li> <li>• Amaierako formularik ez</li> <li>• Agurrik ez</li> </ul>
---	---

2) Inoiz edo behin, SDa testuz hornitzeko ahaleginean, oin-oharren bidez azalpenen bat egingo da irudikatu beharreko beste ariketarik balego, SD baten diseinuaz ari gara eta. Bestetik, noizbehinka ahozko testuen transkribaketa soilak ere erabiliko dira, baina ez osoak. Halakoetan, (...) zeinuarekin adieraziko da testuak luzeago jarraituko lukeela. Gainera, transkribaketa hauek ez dute punturik edo komarik izango. Honen helburua ikasleak ez baldintzatzea da, esaterako, pausen ariketa batean, ez dezaten puntua ikusten duten bakoitzean pausa adierazi.

Hona ondoren, SDaren lau moduluak:

### 1. MODULUA: Egoeraz jabetzea

#### Lehenengo ariketa

- **Aditu batek jendaurrean ahoz gora irakurritako *Hiru txerritxoak* ipuinaren *A* eta *B* entzumenak entzun eta saia zaitez galderak erantzuten:**

	A ENTZUMENA	B ENTZUMENA
Zeinetan ulertzen da hobeto ipuina?		
Aurkezten al da		



ipuina?		
Ipuinetarako sarrera formularik erabiltzen al da?		
Musika erabiltzen al da? Etenik egiten al da? Zein momentutan?		
Kantarik erabiltzen al da? Zein ekintzarekin lotuta?		
Zein aukeratuko zenuke umeen irratsaio batean jartzeko? Zergatik?		

- **Galderak erantzun ondoren, talde handian erantzunak partekatu eta ipuinak irakurtzeko moduz eztabaidatuko dugu.**

### Bigarren ariketa

- **Ariketa honetan ikus-entzunezko bideo bat ikusiko duzu. Bertan, aditu batek grabatutako saio bat ikusi ahal izango duzue<sup>3</sup>: Bideoa ikusi ondotik hausnartu galdera hauek:**

- 1.- Nori kontatzen ari zaio ipuina?
- 2.- Kontatzen ari da edo irakurtzen?
- 3.- Nola irakurtzen du? Buruz ari al da?
- 4.- Zertarako erabiltzen du papera irakurtzerakoan?

<sup>3</sup> Bideo honetan, irratirako estudio batean aditu batek grabatzen duen ipuin baten ahoz gorako grabazio bat ikusiko dute ikasleek. Mikrofona aurrean, adituak ahoz gorako irakurketa egiteko idatzizko adierazpide grafikoa darabilela ikusiko da eta, beraz, idatzizko sostengua sortzen duen ahozko testuaren oinarria dela ikusten.



5.- Zuk ere horrela egiten al duzu ahoz gora irakurtzerakoan? Zergatik?

### Hirugarren ariketa

- **Erantzun eta eztabaidatu galdera hauek:**

- 1.- Zein funtzio dute ipuinek? Zertarako kontatzen ditugu?
- 2.- Gauza bera ipuinak irakurtzea norberarentzako edo norbaitentzako ahoz gora?
- 3.- Gauza bera al da hartzailea aurrean egotea ala entzuteko aukera soilik izatea?
- 4.- Ipuina goza dezan entzuleak zer egin dezakegu testua irakurtzerakoan?
- 5.- Ahoz esango dugunez erabili al ditzakegu hotsak, soinuak, kantak, eta antzekoak? zer besterik?

### Laugarren ariketa

- **A entzumena entzun eta musikan jarriko dugu arreta<sup>4</sup>**

- 1.- Zenbat aldiz entzuten da musika?
- 2.- Ipuineko zein momentutan agertzen da musika?
- 3.- Zein musika erabiltzen da?
- 4.- Ba al dago desberdintasunik hiru kantuen artean? Zein?

- **Hona hemen Hiru Txerritxoak ipuina. Ariketa honetan, zure bertorio propioa egingo duzu. Non jarriko zenuke musika edo kanta? Ikasle batek ipuinaren hasiera egin du, jarrai ezazu ipuinaren bukaerara heldu arte. Erabili ezazue ondo-testu hau eta proposamenak egin musika nola erabiliko zenuketen adieraziz.**



Hiru txerritxoak



behin batean basoaren erdigunean anaiak ziren hiru

txerritxo bizi ziren gau batean otso bat inguruetan zegoela ohartu ziren hiru txerritxoek otsoaren beldur handik alde egitea eta bakoitzak etxe bat eraikitzea erabaki zuten txerri txikiak lastozko etxe bat egin zuen etxe bigun eta goxo hura jolasteko bai aproposa ertainak bere anai txikiaren etxetik gertu egurrezko etxea egin zuen politta eta eroso hauxe ere txerritxo nagusienak berriz adreiluzko etxea eraiki zuen ederra eta dotorea


<sup>4</sup> A entzumenak hasieran, txerritxo bakoitza etxea egiten ari den momentuan eta amaieran izango du musika. Hiru une horietako musika ezberdina izango da (bigarrena txerritxoek kantatua izango da).



zoriontzekoa benetan hiru txerri anaiek egindako lan bikaina baina gau batean gauaren erdian otsoa ageri zen txerri txikiaren etxera eta honela esan zion:

- txerritxo txerritxo utzidazu sartzen
- ez ez ez iñolaz ere ez
- orduan putz eta putz egingo dut eta zure etxea botako dut

Otsoak putz eta putz egin eta lastozko etxetxoa bota zuen lurrera txerritxoa oso

beldurtuta bere anaia ertainaren etxera abiatu zen  (...)

- **Orain har ezazu zure Txanogorritxoren bertsioa eta aukera ezazu musika non sartu.**

### KONTROL ZERRENDA

- Zure irakurketa A entzumenetik gertuago dago? Zertan?
- Kontuan hartu duzu 3-4 urteko haurrek ipuina entzuteko aukera soilik izango dutela?
- Musikarekin lagunduko duzu ipuinaren grabaketa.

## 2. MODULUA: Hasierako eta amaierako formulak

### Lehenengo ariketa

- **Hasiera eta amaiera formulen gida-fitxa irakurri. Ondoren, A entzumena entzungo dugu eta fitxa aurrean duzularik, hasiera eta amaiera formulak identifika itzazu.**

HASIERA FORMULAK <sup>5</sup>	AMAIERA FORMULAK
Zeruan urdina, lurrean belarra, hondartzan harea, itsasoan ur tantak eta nire ahoan ipuinak.	Katu, katu ipuina bukatu.

<sup>5</sup> Hasiera eta amaiera formulak erreferentzia honetatik hartu dira: Irusta, A. (2001), *Autu-mautuan*, Bilbo: Gero euskal liburuak.



Istorio hau haizeak kontatu zidan basamortuko oasi batean izarren artean lo egiten nuen gau hartan.	Egia bada, sakelan sar; gezurra bada, atera ez dadila.
---	---

### Hiru txerritxoak A entzumena:

Hasiera formula: \_\_\_\_\_

Amaiera formula: \_\_\_\_\_

### Bigarren ariketa

- **Erantzun itzazu galdera hauek:**

- 1.- Hasiera eta amaiera formulak zertarako erabil ditzakegu jendaurrean irakurtzerakoan?
- 2.- Zer esan nahi dute entzulearentzat? Agertzen al dira idatzizko ipuin liburuetan?
- 3.- Komenigarriak al dira ipuin bat irakurtzerako edo entzuterako orduan? Zergatik?
- 4.- Ipuinak ahoz gora irakurtzerakoan zerbait aldatzen al da hasiera eta amaiera formulak erabiliz gero? Zer?

### Hirugarren ariketa

- **Zure gustura Txanogorritxo ipuinean erabiltzeko hasiera eta amaiera formula berriak sor itzazu gida-fitxa oinarritzat harturik.**

<b>HASIERA FORMULA</b>	
Zeruan urdina, lurrean belarra, hondartzan hareia, itsasoan ur tantak eta nire ahoan ipuinak.	Zeruan urdina, lurrean belarra, hondartzan hareia, ----- -----
<b>AMAIERA FORMULA</b>	



Katu, katu ipuina bukatu.	----- ipuina bukatu.
---------------------------	----------------------

#### Laugarren ariketa

- **Hartu ezazu gustuko duzun ipuin bat eta irakurri ezazu zuk zeuk asmatutako hasiera eta bukaera formulak erabiliz.**

#### **KONTROL ZERRENDA**

- Gogoratu hasiera eta amaiera formulak garrantzitsuak direla entzuleari etorriko dena ohartarazteko.
- Sortutako hasiera formula Txanogorritxo ipuinean erabili duzu?
- Sortutako amaiera formula Txanogorritxo ipuinean erabili duzu?

### 3. MODULUA: Modalizazioa

#### Lehenengo ariketa

- **Hiru txerrikumeen ipuinaren beste ikus-entzunezko bertsio hau erreparatu ([https://www.youtube.com/watch?v=C\\_MRLKTiv88](https://www.youtube.com/watch?v=C_MRLKTiv88)) eta erantzun galdera hauek:**

- 1.- Zenbat pertsonaia daude?
- 2.- Berdin hitz egiten al du kontalariak bere kontakizunean eta pertsonaien ahotan?
- 3.- Nola adierazten ditu kontalariak pertsonaien emozioak?
- 4.- Txerrien ahotsetan sumatzen al da beldurra otsoa agertzean? Nola?
- 5.- Otsoak berdin hitz egiten du txerriak limurtu nahi dituen bakoitzean eta atea irekitzen ez diotenean?

#### Bigarren ariketa

- **A entzumenaren zati bat paperean duzularik, azpimarratu koloreen bitartez pertsonaien emozio ezberdinak:**
  - Txerrikume bakoitzaren etxea egiteko asmoa nola adierazten dute?





- Otsoa azaltzen den bakoitzean nola aldatzen da txerrikumeen ahotsa?
- Otsoa modu atseginean noiz mintzatzen da?
- Otsoa zakar noiz mintzatzen da?
- Erregurik egiten al dute pertsonaiek?

Antzina landareak eta animaliak mintzo ziren garaian baziren basoaren erdian bizi ziren hiru txerrikume txerrikume bakoitzak bere etxea egitea pentsatu zuen txerrikume gazteenak lastozko etxea egin zuen etxe apaina alajaina txerrikume ertainak zurezko etxea egin zuen etxe txukuna nire kuttuna txerrikume nagusiak berriz harrizko etxea egin zuen etxe sendo sendoa egun batean basoan goseti zebilen otsoa txerrikume gazteenaren etxera joan zen:

- Kax, kax, kax! Ireki atea!- esan zion otsoak
- Ez, ez! jan egingo nauzu eta!- erantzun zion txerrikumeak
- Ba puutz eta puutz lastozko etxea airean botako dut!- otsoak putz eta puutz egin eta lastozko etxea desegin.

Horrela / txerrikume gazteena korrika korrika anaia ertainaren etxera joan zen (...)

#### Hirugarren ariketa

- **Taldeka jarri eta erantzun itzazue galdera hauek:**

1.- Ipuinak irakurtzerakoan pausak egiten al dira?

2.- Non egiten dira pausak eta zertarako?

**Jarraian, berriz ere *Hiru txerrikumeak* ([https://www.youtube.com/watch?v=C\\_MRLKTiv88](https://www.youtube.com/watch?v=C_MRLKTiv88)) ipuina entzungo duzu. Saia zaitez pausak non egiten jasotzen eta zertarako diren esaten. Lehenengo hiru pausak markatuta daude dagoeneko. Lehena, izenburua ezberdintzeko jarri dugu eta, bigarrena, otsoa agertu baino lehen. Segi zuk pausak non egingo zenituzkeen proposatzen:**

Hiru txerrixoak **PAUSA** behin batean **PAUSA** basoaren erdigunean anaiak ziren hiru txerrixo bizi ziren **PAUSA** gau batean otso bat inguruetan zegoela ohartu ziren hiru



txerritxoek otsoaren beldur handik alde egitea eta bakoitzak etxe bat eraikitzea erabaki zuten txerri txikiak lastozko etxe bat egin zuen etxe bigun eta goxo hura jolasteko bai aproposa ertainak bere anai txikiaren etxetik gertu egurrezko etxea egin zuen politta eta eroso hauxe ere txerritxo nagusienak berriz adreiluzko etxea eraiki zuen ederra eta dotorea zoriontzekoa benetan hiru txerri anaiek egindako lan bikaina baina gau batean gauaren erdian otsoa ageri zen txerri txikiaren etxera eta honela esan zion:

- txerritxo txerritxo utzidazu sartzen
- ez ez ez inñolaz ere ez
- orduan putz eta putz egingo dut eta zure etxea botako dut

Otsoak putz eta putz egin eta lastozko etxetxo bota zuen lurrera txerritxoa oso beldurtuta bere anaia ertainaren etxera abiatu zen (...)

#### Laugarren ariketa

- **Oraingoan A entzumeneko ipuina hartuko dugu. Ikus dezakezun bezala, etenak batzuetan laburrak dira eta bestetan luzexeagoak. Zergatik? Marka itzazu etenak laburragoak (/) eta luzeagoak (//) direnean eta hausnar ezazu zergatik egiten duen hori kontalariak.**

Antzina / landareak eta animaliak mintzo ziren garaian / baziren basoaren erdian bizi ziren hiru txerrikume // txerrikume bakoitzak bere etxea egitea pentsatu zuen / /txerrikume gazteenak lastozko etxea egin zuen // etxe apaina alajaina!! / txerrikume ertainak zurezko etxea egin zuen etxe txukuna nire kuttuna / txerrikume nagusiak berriz / harrizko etxea egin zuen etxe sendo sendoa egun batean basoan goseti zebilen otsoa txerrikume gazteenaren etxera joan zen:

- Kax, kax, kax! Ireki atea!- esan zion otsoak
- Ez, ez! jan egingo nauzu eta!- erantzun zion txerrikumeak
- Ba puutz eta puutz lastozko etxea airean botako dut!- otsoak putz eta puutz egin eta lastozko etxea desegin.

Horrela / txerrikume gazteena korrika korrika anaia ertainaren etxera joan zen (...)

#### Bosgarren ariketa

- **Orain, har ezazue zuen Txanogorritxoren testua eta marka itzazue kontatzerako orduan zuei ondo datozkizuen pausak.**

**KONTROL ZERREDA**

- Gogoratu tonu aldaketak egitea garrantzitsua dela.
- Markatu al zenituen Txanogorritxo ipuinean agertzen diren sentimendu, emozio eta ekintza ezberdinak?
- Pausa labur zein luzeak markatu al zenituen Txanogorritxo ipuinean?

## 4.MODULUA: Bukaerako ekoizpena

## Lehenengo ariketa

**HARTZAILEA:** Ospitaleko 3-4 urte bitarteko haurrak.

**ROLA:** Ipuin irakurtzaile.

**KANALA:** Irrati bidezkoa.

**KONTSIGNA:**

Donostiako ospitaleak duela gutxi proiektu berri bat jarri du martxan. Donostiako ikastoletako ikasleek ospitalean dauden 3-4 urte bitarteko haurrei ipuinak ahoz gora irakurriko dizkiete hileroko irratsaioan. Datorren hilabeteko saioa egitea gure ikasgelari egokitu zaio eta *Txanogorritxo* ipuina landuko dugu. Zein da proiektu honen helburua? Bada, haurren ospitaleko egonaldia arintzea, finean, haiek gozatzea. Horretarako, kontuan hartu beharko duzue haurrek zuen ahotsa entzun besterik ez dutela egingo, hortaz, ahalik eta modu adierazkorrean irakurriko duzu ahoz gora ipuina entzuleak ondo jarraitu, ulertu eta gozamen hartu dezan ipuina entzuterakoan.

- **Txanogorritxo ipuinaren ahoz gorako irakurketa prestatu taldeka, kontrol zerrendaren laguntzaz.**



## KONTROL ZERRENDA

- Zure irakurketa A grabaziotik gertuago dago?
- Kontuan hartu duzu 3-4 urteko haurrek ipuina entzuteko aukera soilik izango dutela?
- Musika jarriko duzu. Ipuinaren ze momentutan?
- Gogoratu hasiera eta amaiera formulak entzulea ohartarazteko garrantzitsuak direla.
- Sortutako hasiera formula Txanogorritxo ipuinean erabili duzu?
- Sortutako amaiera formula Txanogorritxo ipuinean erabili duzu?
- Ahoz gora irakurtzerakoan frogatu duzu ondoen datorkizun lekuan egiten dituzula tonu aldaketak?
- Markatu al dituzu Txanogorritxo ipuinean agertzen diren sentimendu, emozio eta ekintza ezberdinak?
- Arnas hartzeak eta pausa labur zein luzeak markatu al dituzu Txanogorritxo ipuinean?

### Bigarren ariketa

- Ahoz gorako irakurketa egin eta grabatu.

## EBALUAZIOA

Hona hemen lau moduluak ebaluatzeko ikasleek nahiz irakasleek erabili dezaketen irizpideak bilduta sortutako taula:

2. Taula: Kontrol-zerrenda taula-bidez.

IKASLEAREN IZENA:	HASIERAKO EKOIZPENA		BUKAERAKO EKOIZPENA	
	Bai	Ez	Bai	Ez
<b>1. Jarduera osoari begira</b>				
1.1.Hasiera formula				
1.2.Amaiera formula				



1.3. Musikaren erabilera				
<b>4. Testuaren egiturari lotutako irizpideak</b>				
1.3. Ahots aldaketa 1.4. Pertsonaien emozioen adierazpena 1.5. Pausak eta musika				
<b>OHARRAK:</b>				

## 5. ONDORIOAK

Sarreran esan bezala, ahoz gora irakurketak eskaintzen dituen baliabideetan sakontzea nahi izan da lan honen bitartez. Ahozkoa berariaz, objektu irakasgarri gisa, aski landua izan ez denez, lehenik eta behin, hausnarketa teorikoa egitea beharrezkoa iruditu zaigu. Bertan, ahozko modalitatearen definiziora hurbiltzen saiatu naiz bere ezaugarriak eta eskolan izan duen bilakaera deskribatuz. Atal praktikoari dagokionez, metodologia espezifiko bat aurkeztu dut: Sekuentzia Didaktikoa.

Lan hau osatzeko orduan hainbat zailtasunekin egin dugu topo. Hasteko, ahoz gora objektutzat duten euskarazko lanen erreferentzia falta sumatu dut. Bigarrenik, ahozko komunikazioaren metahizkuntza urria izateak (De Pietro eta Dolz, 2007) irakatsi nahi diren objektuen izendapena bera ere zaildu egiten duela iruditzen zaigu. Azkenik, eta batez ere zaila gertatu zaigun atala, Sekuentzia Didaktikoko moduluetako ariketak sortzea izan da, ahozko eta idatzizko adierazpide bien arteko uztartzea suposatzen duen ahoz gora lantzeko orduan, hain zuzen ere. Oro har, didaktikaren ikuspegitik, irakaskuntza objektu berankorra da sistematizatzeko eta objektibatzeko orduan (Dolz & Schneuwly, 1998). Ahozkoaren izaerak berak baldintzatzen du horren behaketa eta tratamendua. Izatez da eta, idatzizkoa baino atzemateko gaitzagoa. Metodologikoki ere, ikasle guztiekin lan egiteko teknikak eta ariketa bereziak garatzea eskatzen du.

Halaber, esan nezake ez dela lan erraza ikasle talde ikasle talde bakoitzaren beharretara egokitutako Sekuentzia Didaktiko bat eraikitzea. Aldi berean, ordea, merezi duelakoan gaude, hizkuntzaren irakaskuntza eta, bereziki, ahozko modalitatea modu eraginkorrean eta sistematikoki irakatsi nahi baldin bada.



Lan hau, beraz, ahoz gora ahozkoa lantzeko baliabide gisa ezagutzeko aukera izan da. Etorkizunari begira, izan ere, euskararen irakaskuntzak ere erronka handiak dituela gogorarazten digute Garcia Azkoaga eta kideek (2010):

- Ahozko hizkuntzaren irakaskuntzaren definizio hobea.
- Askotariko baliabide didaktikoak sortzea.
- Ahozko komunikazioa eta, oro har, komunikazio-gaitasunak neurtzeko ebaluazio-irizpide eta baliabideak sortzea.
- Irakasleen prestakuntzan eragitea, unibertsitateko prestakuntzari dagokionez zein etengabeko prestakuntzari dagokionez.
- Ahozko hizkuntzaren izaeraren eta haren irakaskuntza-ikaskuntzaren gaineko azterketak eta ikerketak bideratzea.
- Praktika pedagogikoen eta ahozkotasunak gelan duen lekuaren inguruko ikerketak burutzea.

## 6. BIBLIOGRAFIA

- Alegria, A. (2009). Errepikapen lexikoak ahozko modalitatearen koherentzia sintaktikoaren ikuspegitik aztergai. *Euskera*, 54, (771-809). Kontsulta [2015-01-17]: <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3308891>.
- De Pietro, J.-F. & Dolz, J. (2007). Ahozkoa testu gisa: nola eraiki objektu irakasgarri bat. In *Ahozko hizkuntza: Euskararen azterketarako eta didaktikarako zenbait lan*. Bilbo: UPV-EHU. Kontsulta [2015-05-20]: [http://testubiltegia.ehu.es/Ahozko-Hizkuntza/08\\_ahozkoa\\_testu\\_gisa.pdf](http://testubiltegia.ehu.es/Ahozko-Hizkuntza/08_ahozkoa_testu_gisa.pdf).
- Diaz de Gereñu, L. (2002). Ahoz gora irakurtzea 2H-ren irakaskuntzan. *Helduen euskalduntzearen IV jardunaldiak*. (99-102). Bilbo: UEU.
- Diaz de Gereñu, L. (2005). Ahozko kontaketa eta eskolako jarduera. *Ikastaria*, 14, (31-42).
- Diaz de Gereñu, L., Idiazabal, I. & Larringan, L.M. (2007). Ipuin kontalaritzaren eredu berria?. In *Ahozko hizkuntza: Euskararen azterketarako eta didaktikarako zenbait lan*. Bilbo: UPV-EHU. Kontsulta [2015-06-11]: [http://testubiltegia.ehu.es/AhozkoHizkuntza/03\\_ipuin\\_kontalaritza.pdf](http://testubiltegia.ehu.es/AhozkoHizkuntza/03_ipuin_kontalaritza.pdf).
- Diaz de Gereñu, L. & Garcia-Azkoaga, I. (2009). Ahozko narratibotasuna interakzionismoaren argitara: kohesio mekanismoek esaten digutena. *Euskera*, 54, (723-770).
- Diaz de Gereñu, L. & Garcia-Azkoaga, I. (2012). Hizkuntza garatzeko baliabideak Curriculuma Norbanakoari egokitzeko (CNE) programetan: Sekuentzia Didaktikoaren zenbait gogoeta. *Ikastaria*, 18, (117-135).



- Dolz, J. & Schnewly, B. (1998). *Pour un enseignement de l'oral*. Paris: ESF.
- Elosegi, L. & Esnal, P. (2004). Euskaltegi-kurrikuluak egiteko jardunbide bat. *HIZPIDE*, 57, (99-107).  
Kontsulta [2015-11-27]:  
[http://www.ikasten.ikasbil.eus/pluginfile.php/1945003/mod\\_habecms/doc\\_attachment\\_eu/259/57.pdf](http://www.ikasten.ikasbil.eus/pluginfile.php/1945003/mod_habecms/doc_attachment_eu/259/57.pdf).
- García Azkoaga, I. M., Díaz de Guereñu Lasaga, L., Imaz Gaztelurrutia, A., & Alegría Susperregui, A. (2010). Ahozkotasunaren irakaskuntza bigarren hezkuntzako testuliburuetan. *Tantak*, 22, (7-42).
- Ibarra, J. (2012). Sekuentzia Didaktikoen onurak testuak ekoizten irakasteko: Irakasle-eskolako ikasleekin egindako esperientzia baten emaitzak. *Ikastaria*, 18, (137-152).
- Idiazabal, I. (2007). Hitzaurrea. In *Ahozko hizkuntza: Euskararen azterketarako eta didaktikarako zenbait lan*. Bilbo: UPV-EHU. Kontsulta [2016-01-18]:  
[http://www.testubiltegia.ehu.es/Ahozko-Hizkuntza/00d\\_hitzaurrea.pdf](http://www.testubiltegia.ehu.es/Ahozko-Hizkuntza/00d_hitzaurrea.pdf)
- Larringan, L.M. (1992). Ipuingintza: komunikazioa eta praktika linguistikoa. *Euskera*, 37, (497-505).  
Kontsulta [2015-05-22]: <http://www.euskaltzaindia.com/dok/euskera/50133.pdf>.
- Igerabide, J.K. (1993). *Bularretik mintzora (Haurra, ahozkotasuna eta Literatura)*. Donostia: Erein.
- Larringan, L.M. & Idiazabal, I. (2007). Ahozko hizkuntza ulertzeko hiru gogoeta. . In *Ahozko hizkuntza: Euskararen azterketarako eta didaktikarako zenbait lan*. Bilbo: UPV-EHU. Kontsulta [2015-06-11]: [http://testubiltegia.ehu.es/Ahozko-Hizkuntza/05\\_ahozkoari\\_antza.pdf](http://testubiltegia.ehu.es/Ahozko-Hizkuntza/05_ahozkoari_antza.pdf).
- Larringan, L.M. (2009). Testua, testu-generoa eta hizkuntzaren ikas/irakaskuntza. *Euskera*, 54, (505-539).
- Larringan, L.M & Idiazabal, I (2012). Sekuentzia didaktikoa: ekintza didaktikoaren zutabe eta ardatz minimoki fidagarria. *Ikastaria*, 18, (13-44).
- Schnewly, B. (2003). Jendaurreko hizketaren irakaskuntza: hurbiltze soziohistorikoa. In *Ahozko hizkuntza: Euskararen azterketarako eta didaktikarako zenbait lan*. Bilbo: UPV-EHU. Kontsulta [2015-06-11]: [http://testubiltegia.ehu.es/Ahozko-Hizkuntza/07\\_jendaurrean\\_hizketan.pdf](http://testubiltegia.ehu.es/Ahozko-Hizkuntza/07_jendaurrean_hizketan.pdf).

## ERANSKINA: TRANSKRIBAKETA IRIZPIDEAK

Val.Es.Co-ren transkribaketa irizpideak hartu ditut transkribaketen oinarri, hala ere, beharraren eta erabileraren arabera, egokitu egin ditut.

- / Pausa corta, inferior al medio segundo.
- // Pausa entre medio segundo y un segundo.
- /// Pausa de un segundo o más.



(5'') Silencio (lapso o intervalo) de 5 segundos; se indica el número de segundo sen las pausas de más de un segundo, cuando sea especialmente significativo.

↑ Entonación ascendente.

↓ Entonación descendente.

(RISAS , TOSES,

GRITOS...) Aparecen al margen de los enunciados. En el caso de las risas, si son simultáneas a lo dicho, se transcribe el enunciado y en nota al pie se indica «entre risas».

aa Alargamientos vocálicos.

nn Alargamientos consonánticos.

¿ ? Interrogaciones. También para los apéndices del tipo «¿no?, ¿eh?, ¿sabes?»

¡ ! Exclamaciones.

## ERANSKINA: CORPUSA

### 1. Trasnkribaketa (T1)

Bazen behin Txanogorritxu izeneko nexka / nexkabat // egun batean, Txanogorritxuren amak deitu zion esanez / Txanogorritxu / jun / amona jun amonaren etxera amona gaixorik dago eta / eta: / emaizkiozu goxo // mentazko goxokiak eta opiltxoak (5'') eta kontuz otxo maltzurrarekin // eta: Txanogorritxu bere amak esanda // basora abiatu eta otxo maltzurra / otxo maltzurra // otx-otxo maltzurarekin topatu zen / Txanog / otxo maltzurra galdetu zion Txanogorritxuri aber / nora zijoan eta Txanogorritxuk esan zuen amona ikustera zijoala / eta: / amaka-Txanog otxoak esan zion lasterketa bat egin nai zuela eta bide motxena hartzeko bera otxoa oso azkarra zela / eta otxoak ziria sartu zion / eta otxoak bide motzena hartu eta Txanogorritxuri bide luzeena esan zion /// otxoa / amonaren etxera iritxi / atea ireki eta // amona osorik jan zuen eta handikan gutxira Txanogorritxu iritx-iritxi zen // Txanogorritxu atea jo eta / esan // eta otxoak esan zion atea irekia zegoela eta: bere: // eta hasi zan galdetzen Txanogorritxu / zergatik duzu hain belarri haundiak? ↑ eta Txanogorritxuk erantzun tzion / zu hobeto entzuteko // otxoak





galdetu zi/ Txanogorritxuk galdetu zion zergatik dituzu hain begi haundiak? ↑ / Zu hobeto // ikusteko. Zergatik / zergatik duzu hain sudur haundia? ↑ Zu obeto usaintzeko // zergatik duzu hain aho haundia? ↑ zu obeto / jat / zu jateko / eta ordun Txanogorritxu karraxika hasi eta ehiztariak entzun zion // ehiztaria korrika amonaren etxera joan zen eta / e::m Txanogorri / Txanogorritxurengana joan eta ehiztariak / Txanogorritxuri / otxoari hil zion eta amona atera zuen // amonak festa bat antolatu zuen eta handikan aurrera pozik bizi izan ziren

## 2. Transkribaketa (T2)

Txanogorritxu / bazen behin neskata bat / e:: Txanogorritxu izenekoa / am-amarekin bizi zela / eta amak esan zion egun batean amonaren etxera yoateko / eta // e: pastelak eta: (5'') a bai / pastelak eramatera / eta esan zion otxo maltzurarekin kontuz ibiltzea // Txanogorritxo e:: amonaren etxera yoan zen / eta: em: otxoarekin aurkitu zen / eta otxoak esan zion nora zijoala eta Txanogorritxok esan zion amonaren etxera // eta Txanog eta otxoak esan zion // e:: lasterka bat egingo degu eta // Txa eta esan zion otxoak ere bai n-ni bide honetatik yoango naiz motxagoa / osea luzeagoa dala / eta zu jun horretatik motxagoa dala // eta gezurra esan zion / eta // eta Txanogorritxo jun zen bide luzetik eta gelditu zen loreak hartzera // baño ottoa amona amonaren etxera iritxi zen lenago eta eta atea yo zuen / eta / amonak esan zun sartu: // e:: ottoa sartu zen eta // e:: ottoa sartu zen eta e:: amona yan zuen // gero Txanogorritxu iritxi zen eta / esa eta / otxoak esan zuen sartu / Txanogorritxu sartu egin zen eta Txanogorritxuk / otxoari otxoan zerbait arraroa sumatu zuen eta hasi eta galdetu zuen / zergaitik duzu hain begi haundiak? ↑ zu hobeto ikusteko / zergaitik duzu hain belarri haundia? ↑ zu hobeto / entzuteko // zergaitik dituzu hain sudur haundia? ↑ zu hobeto usaintzeko / zergaitik duzu hain aho haundia? ↑ zu hobeto jateko / eta Txanogorritxu karraxika hasi zen // eta eta otxoak Txanogorritxu jan zuen / eta ehiztaria zegoen basoan entzun egin zuen eta amonaren etxera abiatu zen / eta ehiztaria / em: ottoa hil zuen eta gero Txanogorritxu eta // e:m amona atera zuen / eta guztiak poz pozik bizi izan ziren

## 3. Transkribaketa (T3)

Bazen behin neskato bat Txanogorritxo izena zuena /// egun batean / amak esan zion amonaren etxera / otarre hau eramateko / ta gauza hauek zeuden otarrean // galletak zumoa zopa eta botika // (hasperena) em:: amak esan zion ez ezerekin entretenitzeko bidean // eta kontuz ibiltzeko otxoarekin // Txanogorritxuk muxu bat eman zion amari



eta amonaren etxera abiatu zen // bidean / loreak hartzea gelditu: zen / eta bidetik atera zen / eta otxoarekin topatu zen / otxoak galdetu zion aber noa zijoan ta e Txanogorritxuk esan zion / amonaren etxera zijoala / eta otxoak esan zion bide horretatik juteko motxagoa zela / baña ziria sartu zion eta:/ Txanogorritxu bide luzetik bidali zuen// otxoa amonaren etxera iritxi eta atea jo zuen / eta amonak esan zion sartzeko /// otxoak amona jan eta mozorrotu egin zen otxoa amonaz ta // gero Txanogorritxu iritxi // atea jo // eta otxoak sartzeko esan zion /// Txanogorritxuk esan / esan zion amonari// amona amona ze belarri haundiak dituzun ↑ zu hobeto entzuteko dira esanzion /// ta e em Txanogorritxuk esan tzion // amona amona ze sudur haundia duzun ↑ / zu hobeto usaintzeko da // amona amona ze begi handiak dituzun ↑ / zu hobeto ikusteko // amona amona ze aho handia duzun ↑ / zu hobeto jateko // Txanogorritxu karraxika hasi eta korrika atera zen / otxoa atzetik zuela / ehiztariak bidean / ikusi zuen Txanogorritxu korrika otxoa atzetik zuela /// ehiztariak bidean ikusi zuen Txanogorritxu korrika otxoa atzetik zuela eta ehiztariak otxoari tiro egin eta hil egin zen otxoa / hil egin zuen // eta gero / em Txanogorritxuri bururatu zitzaion tripa irikitzea eta amona ateratzea // amona atera ondoren festa bat antolatu zuten eta poz pozik bizi izan ziren

#### 4. Transkribaketa (T4)

Neskatxa bat Txanogorritxo izena zuen // Txanogorritxo galletak / eta ezta eraman behar zituen amonari / amona gaixo baitzegoen (5'') amak esan zion // e:: (5'') amak esan zion abiatzeko baina kontuz ibiltzeko otxo maltzurrekin / Txanogorritxo abiatu zen kantari (5'') em:: /// ta otxoarekin topatu zen ta otxoak galdetu zion nola zuen izena ta nora zijoan / Txanogorritxok esan tzion Txanogorritxo izena zuela / eta amonaren etxera zijoala // otxoak / esan zion / em: / handik zela bide: laburrena / baña ziria sartu zion ta otxoa / jun zen laburrenetik (5'') otxoa / e: atea jo eta amonak esan zion sartzeko / Txanogo-Txanogorritxo usten zuela zela / eta /// otxoak amona jan ta // amona: /// amona:n gauzak jarri // eta Txanogorritxo iritxi / eta hasi zitzaion galdetzen // amona zergatik dituzu hain begi haundiak? ↑ / zu hobeto ikusteko / ta zergatik dituzu hain belarri haundiak? ↑/ zu hobeto entzuteko / ta zeatik dezu hain sudur handia? ↑/ zu hobeto usaintzeko / ta zeatik dezu hain aho handia? ↑/ zu hobeto jateko! / Txanogorritxo korrika atea zen builaka / ta / otxoa ta ehiztariak entzun zute:n Txanogorritxoren ahotsa / ta: otxoa ikusi ta / tiro bat bota ta hil in zen // ta handik aurrera oso ondo bizi izan ziren



## 5. Transkribaketa (T5)

Txanogorritxo / bazen behin Txanogorritxu izeneko neskatilla bat // behin / bere amak esan zion amona oso gaixo zegoela / eta ezta eta opillak eramateko // abiatu zen eta /// otsoarekin topo egin zuen / otsoak esan zion / aber nora zijoan eta esan zion / amonaren etxera zijoala // otsoak esan zion bide motxena / eskuinetik zela eta hori luzeena zen // Txanogorritxu abiatu zen eta / otsoa lenago abiatu zen // otsoak / amona jan egin zuen eta // gero / Txanogorritxo iritxi zen // Txanogorritxuk zerbait arraroa somatu zuen / eta honela galdetu zion // zergaitik duzu hain sudur handia? ↑ / zu hobeto usaintzeko / zergatik dituzu hain belarri handiak? ↑ / zu hobeto entzuteko / zergatik dituzu hain begi handiak? ↑ / zu hobeto ikusteko / zergatik dituzu / duzu hain aho handia? ↑ / zu hobeto jateko /// Txanogorritxu bullaka hasi eta / ehiztari batek entzun zion // ehiztaria korrika joan eta / etxera sartu zen / eta / ikusi zuenean otsoa barruan zegoela / tiro bat eman zion // handik aurrera poz pozik bizi izan ziren

## 6. Transkribaketa (T6)

Txanogorritxu / bazen behin neskatxo bat Txanogorritxu izena zuena / bere amarekin bizi zena // egun batean Txanog-am- / Txanogorritxuren amak / esan zion amonaren etxera pastela eta ezta eraman behar zuela /// amak esan bezala / Txanogorritxu basora abiatu zen / eta otxo batekin topatu zen // otxo-ak galdetu zion nora zijoan eta Txanogorritxuk amonaren etxera ga- / erantzun zion /// otxoak engainatuz / bide / luzeena esan zion eta / ottoa berriz bide laburretik abiatu zen // etxera iritsi zenean / atea yo eta // amonak esan zion sartzeko // sartu eta amona / jan zuen // hurrena Txanogorritxu ailegatu zen / eta / tok-tok esan eta / otxoak sartzeko esan zion /// eta honela galdetu zion / zergatik duzu hain belarri haundiak? ↑ zu hobeto entzuteko / zergatik dituzu hain begi haundiak? ↑ / zu hobeto entzuteko / zer-ga-tik dituzu hain sudur handi / zergatik daukazu hain sudur handia? ↑ / zu hobeto usaintzeko / zergatik daukazu hain aho handia? ↑ / zu hobeto jateko // Txanogorritxuk oihua egin eta basoan zen ehiztariak entzun eta / amonaren etxera joan ziren // sartu eta otsoa ikusi zutenean / tirokada batez hil zuten eta labankada batez Txanogorritxu eta amona salbatu zituzten // handik aurrera oso ondo bizi ziren

## 7. Transkribaketa (T7)

Txanogorritxo // bazen behin neskatilla bat Txanogorritxo izena zuena // bere amarekin bizi zen / eta: / esan zion amona gaixo zegola // orduan / e: galletak eta: ezta eraman



eraman zuen / ta amonak esan zion kontuz ibiltzeko otxo maltzurarekin // bidean zela / otxo maltzurarekin topatu zen / ta esan zion nora zijoan // Txanogorritxok / erantzun zion bere amonaren etxera zijoala // orduan / esan zuen // otxoak / hortik bide lab- / beste aldetik bide e: /// errexago iritxiko zela ta lenago / handik joan eta otxoa lenago iritxi zen /// otxoak atea / atea jo zuen eta Txa-eta Txanogorritxoren amonak atea irekita zegoela esan zuen // sartu eta / otxoak amona jan zuen / geroago / Txanogorritxo iritxi zen / eta: / zerbait arraroa sumatu zuen / eta es-esan zion zergatik dituzu hain belarri handiak? ↑ / zu hobeto entzuteko // zergatik d dituzu hain begi handiak? ↑ / zu hobeto ikusteko / zergatik duzu hain sudur handia? ↑ / zu hobeto usaintzeko / ta zergatik duzu hain aho handia? ↑ / zu hobeto jateko // Txanogorritxuk garraxi bat egin / ta ehiztariak / basoan zela entzun egin zuen / ehiztaria // e:m / Txanogorritxuren amonaren etxera iritxi / eta // otxoa hil zuen / tripa ireki eta: / em: / Txanogorritxu eta amona askatu zituzten / ta handik aurrera oso pozik bizi izan ziren

#### 8. Transkribaketa (T8)

Txanogorritxo / bazen behin neskatxa bat Txanogorritxo izena zuena /// bere amak esan zion / bere amona oso gaixo zegoela eta // galletak eta ezitia eramateko /// abiatu zenean basoa pasa behar zuela em konturatu zen / eta otxo bat aurkitu zuen /// otxoak galdetu zion nola izena duzu? ↑ eta nora zoaz? ↑ // Txanogorritxok / honela erantzun zion // Txanogorritxo izena det eta amonaren etxera noa / amona gaixo baitago // otxo maltzurak /// bide: / luzeena erakutxi zion / baina esan zion bide laburrena zena // eta: // a:biatu zen /// otxoa / Txanogorritxo baño lenago iritxi zen / eta: / amonari // a amonari atea jo zion /// tok tok! / nor da? ↑ galdetu zuen amonak // Txanogorritxo naiz ireki atea mesedez / sartu-sartu atea irekita dago /// otxoa sartu eta amona jan zuen // geroago Txanogorritxo iritxi zen / eta atea jo zuen / tok tok! / nor da? ↑ Txanogorritxo naiz ireki atea mesedez! /// otxoak honela erantzun zion / sartu-sartu atea irekita dago // Txanogorritxo sartu / ohera: / inguratu eta / honela galdetu zion / zergatik dituzu hain belarri luzeak? ↑ / zu hobeto entzuteko / Txanogorritxo // zergatik dituzu hain begi handiak? ↑ / zu hobeto ikusteko Txanogorritxo / zergatik duzu hain sudur handia? ↑ / zu hobeto usaintzeko Txanogorritxo / z:ergatik duzu hain aho handia? ↑ / zu hobeto jateko // Txanogorritxo / oihuka hasi / eta // ehiztariak entzun zuten // ehiztariak korrika etxera: / etxera: inguratu ziren eta // Txanogorritxo em / otxoaren tripatik honela hasi zen // lagundu! lagundu! /// em ehiztariak laban bat hartu / tripa ireki eta biak atera zituen / ta handik aurrera oso pozik bizi izan ziren